

TOKIKOM

# aike! !

txorierri... ria

Susanna Martín  
Komikilaria





# OHIKO LEKUETAN SALGAI



*Zorte on!*



-  4 Iritziak
-  5 Laburrak eta albisteak
-  10 Beste aukera bat Liher eta Haizearentzat
-  14 Gaztea eta... Jon Ander Campos
-  16 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  18 Menditik patxadaz... Kirikiñausiak
-  20 Gai nagusia... Susana Martín komikilaria
-  28 Udako oporrak
-  30 Berbalagun
-  32 Emaus Fundazioa
-  33 Herbarioa... Garraiska
-  34 Psikologia... Eskolara itzultzea
-  35 Hileko argazkia... Ikusgarria
-  36 Sukaldaritza
-  37 Denborapasa
-  38 Agenda



14 Jon Ander Campos



24 Larrabetzuko jaiak



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



diruz lagundutako aldizkaria

**aikor!**  
txorierriko aldizkaria

**Argitaratzailea:** TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarten Federazioa (Lagatzu, Zorritzeta eta Tximintx komunitatea)  
944 523 447 / 688 864 135 / 747 406 561  
aikortxori@aikor.com / www.aikor.eus



**Zuzendaria:** Xabier Goienetxe

**Erredakzio burua:** Itxaso Marina

**Maketatzailea eta erredaktorea:** Nahia Coello

**Kolaboratzaileak:** Iñaki Atxutegi, Asier Oruetxebarria, @txiribita\_mundi, Gaizka Peñafiel, Joanes Camara eta Jose Angel Mentxa

**Zuzentzaileak:** Iñaki Astorkiza

**Publizitatea:** Amaia Lekue (688 782 642)

**Banaketa:** Eragin

**Inprimategia:** Gertu

**Ale kopurua:** 8.000

**Lege gordailua:** BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor! aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik



## Bederatzi hilabete

**E**gonkortasuna aspergarria ei da. Garai dinamikoek beldurra edota ilusioa sortarazoten dabe. Giroan dago aldaketa politikoa etor leitekela gurera. Ala ez. Oso denbora laburrean hauteskunde bi izan dira gure artean eta Estatu mailako datuak nagusitu badira be, ezin da bistatik galdu gure artean be atentzioa erakarteko moduko zenbakiak emon izan dirala.

Garai dinamikoak dira honeek, zalan-tza barik. Ez dira gutxi kristalezko bola ganbaratik atara dabenak datorren urtean egin behar diran Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan zer gertatuko dan iragarteko. Edozelan be, hametik eta bederatzi hilabetetara zer paseko dan proiektatzea ariketa antzua dala pentsetan dot.

Ehun mila boto galdu eta gero (zenbakia ni bezain potoloa da) badago auto-kritikea serioa egin behar dauanik. Eta ez dau balio erantzukizunak etxetik kanpo

bilatzen ibilteak. Are gutxiago arazoa aitatu egiten dauana egurtzeak. Goiko eta beheko mailatan hartutako erabakiek eta joerek balorazio sakona eta sendoa merezidu dabe. Aldaketa serioak eta begibistakoak ez badagoz ezingo jako joerari bueltea emon.

Bestalde, badagoz euren ordua iritsi dirala esaten dabenak. Aldaketa estetikoa begibistakoa da. Urteetan baltza izan dana koloretan agerten jaku orain. Baina egunen baten gaindituko dogun garaien oihartzunek lohituten dabe kolorintxutan eraikitako panpina. Kolore alaiak baino gehiago behar da sinisgarritasuna irabazteko. Seriotasunea arroparen kolorea baino sano konplexuagoa da.

Danon alde eta danon kontra zera jokutzen dau: uritarrak ez dira lehen bezain fidelak. Unez une erabagiten dau jenteak hauteskunde egunean zer egin. Gaur zuri, biher baltz, etzi ezebe. Halaxe gura dabelako. Kitto.



**IÑAKI ATXUTEGI**  
Kazetaria

Bildurrak eraginda, ilusioak mugituta, gorrotoak astinduta, interesak ziztatuta joaten dira pertsonak hauteskunde mahaietara. Edo etxean geratzen dira. Askok egunean bertan erabagiten dabe zer egin edo zer ez egin. Egongo dira hilabete honeetan zehar eretxia aldatuko dabenak, batzuk behin baino gehiagotan. Egongo dira bidean nekatu egingo diranak eta beste batzuk (asko) nekatuta egongo dira daborduko. Baina horixe da demokraziaren indarra: pertsonen saritu edo zigortu egiten dogu. Egun hartan gu gara epaileak.

**A**zkenaldian, Luis Rubialesek Jenni Hermosori emon eutson musua guztiok ezagutzen doguzan arrazoiengaitik urten da albistegi, egunkari eta abarretan. Musu hori musu lapurtua izan zan. Musuak mota askotakoak dira, eta haien sailkapen bat musu baimenduen eta lapurtutakoen artekoa izan daiteke. Argi dago musu baimendua bi musukideek onartutakoa dala. Nik musu lapurtuak aldarrikatu nahi dodaz; ezkutuan, isilean edo itxaroten ez diran musuak. Musu horiek argi gitxigaz emoten dira, ilunpetan, isilean, salatua ez izateko moduan.

## Musu lapurtuak



**ASIER ORUETXEBARRIA**  
Irakaslea

Lehen holango musu gehiago emoten nebazan; agian, adin kontua izango da, baina gaur egun ez dodaz hainbeste emoten. Adinak eragina dauka, baina ez nirea: musu hartzaileen adinaz ari naz. Seme-alabak gautxoritu egin dira eta gero eta zailagoa izaten da, lo dagozenez, gaueroko musu lapurtua lortzea. Esan dodan moduan, isilpean eta ezkutuan emondakoak, lasaiak, nekatuak, erantzun bakoak, ezitsuak, egunaren amaieraren seinale.

Ekintza berbera zein desberdina izan daitekeen. Ekintza baino, haren asmoa aztertu behar dogu, eta zoritxarrez, helburu nazkagarri larregi dagoz gure gizartean.

**HARATEGIA**  
**ALBERTO**  
Arbolantxa, 4  
Tel.: 944 520 825  
48170 ZAMUDIO

**Goiri'78 s.l.**  
Zerbitzu ofiziala  
Txorierrri et., 46  
48150 Sondika  
Bizkaia  
94 453 25 15  
94 453 39 31

**ZAMUDIO**  
**Loteria Nazionale**  
Leizaola L. plaza, 7  
Tel.: 94 452 09 59  
Faxa: 94 656 69 95  
josuastorkiza@gmail.com



# 600 lagun inguru batu ziren Lezamako Mugetatik lasterketan eta mendi-martxan



a: Gaizka Peñafiel

Irailaren 3an, Lezamako Mugetatik lasterketa eta mendi-martxa egin zen 17. aldiz. Ekintza arrakastatsua izan ohi da eta aurten ere parte-hartze handia egon da. Antolatzailek aipatu dutenez, probaren baitan egin ziren saioetan guztira 600 lagun inguru ibili ziren. Balorazio positiboa ere egin zuten ekintzari buruz, eta goiz osoan herrian oso giro polita egon zela esan. Horrez gainera, eguraldia ere lagun izan zuten, mendian ibiltzeko tenperatura egokia egin zuen eta.


Ohikoa denez, 25 kilometroko mendi-martxa eta lasterketa egin ziren; proba bietan 400 parte-hartzaile inguru izan ziren. Bestalde, nobedadea egon da aurtengo edizioan, lehen aldiz egin baita gaztetxoentzako lasterketa. Hori 12,5 kilometrokoa izan zen eta parte-hartzaileak

–100 bat– Dorrearen inguruan batu ziren ibilbide luzeko parte-hartzaileekin, azken kilometroak elkarrekin egiteko. Era berean, 60 ume ibili ziren eurentzako martxan, gura-soek lagunduta. Parte-hartzaile guztiek jaso zuten kamiseta bat eta dozena bat Lezamako piper.

Proba guztiak ondo irteteko, 60 boluntario ibili ziren lanean ibilbidean zehar, eta eurek egindako lana azpimarratu dute antolatzaileek. Izan ere, domekan ez ezik aurreko egunetan ere ibili ziren ibilbidea atontzen. Ibilbidearen anoa-postuez gainera, txosna ipini zen helmugan, lasterkariak indarrak berritzeko. Kirol-saioak amaituta eta sariak eman ostean, bazkaria egin zuten antolatzaileek eta boluntarioek, guztiek egindako lana eskertzeko. Plazan trikitiaren soinuak izan ziren entzungai, eta Kittu taldeak girotu zuen eguna.

## Sailkapenak

Lasterketa nagusia Jokin Betoloza Belokik irabazi zuen gizonezkoen kategorian, eta bere atzean ibili ziren Josu Caño Estalayo eta Pablo Doña Giron. Emakumezkoen kategoriaren irabazlea izan zen Nerea Iturriaga Gonzalez; bigarrena, Irati Ortiz de Anda lezamarra; eta hirugarrena, Irantzu Chinchetru. Gaztetxoentzako probari dagokionez, Mikel Rodriguez Francia nagusitu zuen gizonezkoen kategorian, eta bere atzean izan ziren Unai Barruetabeña Amilibia eta Jose Antonio Jimenez Ferreiro. Emakumezkoen lasterketa Garazi Sampedro Arandok irabazi zuen; Ainhoa Gernika bigarrena izan zen; eta Itsasne Urkiaga Mugarra, hirugarrena. Txapelak eta garaikurrak banatu ziren lehenengo sailkatuen artean.



RPS: 184/10



**OPTIKA IKUSLAN**

Arbolantxa kalea 5, behea  
ZAMUDIO  
Tel.: 94 452 28 18

**TXORIERRI**  
Inmobiliaria

Justo Ajuria, 2 SONDIKA  
944 711 282  
Info@Inmobiliariatxorierri.com

**ArtileArtean**

Mungialde, 4 - DERIO  
946 240 343 / 665 702 751  
www.artileartean.com





## Loiuk dirulaguntza emango die kirolariei

Josu Andoni Begoña Loiuko alkateak bere webgunean zabaldu duenez, herriko kirolariei diruz laguntzeko deialdia zabaldu du udalak eta eskaera urriaren 13ra arte egin daiteke. Helburua da kirolari federatuei laguntzea Euskal Herritik kanpoko lehiaketek eragindako joan-etorriak eta dietak ordaintzen. Horretara 1.350 euroko diru-partida zuzenduko da. Eskabideak

udaletxean aurkeztu beharko dira 08:30etik 13:30era, udal-webgunean ([www.loiu.eus](http://www.loiu.eus)) dagoen inprimakia beteta.



## Abian da Txorierriko Ipuin Lehiaketa

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak 26. aldiz antolatu du Txorierriko Ipuin Lehiaketa. Bertan nahi duenak hartu ahal du parte, dagokion kategoriaren arabera: A kategoria, 7 urtera arte; B kategoria, 8 eta 9 urtekoak; C kategoria, 10 eta 11 urtekoak, D kategoria, 12 urtetik 15 urtera artekoak eta E kategoria, 16 urtetik gorakoak. Lanak euskaraz idatzi behar dira eta azaroaren 24ra arte aurkeztu ahalgo dira Txorierriko liburutegietan edo Mankomunitateko Euskara Zerbitzuan.

Gaia librea da, eta lanak, argitaratugabekoak. Horiek ebaluatzeko, hartuko dira kontuan, besteak beste, irudimena, kreati-bitatea eta presentazioa. Lanak ez dira lau orrialde baino luzeagoak izango eta parte-hartzaile bakoitzak ezin izango

du lan bat baino gehiago aurkeztu. Lanak gutunazal handia batean aurkeztuko dira eta kanpoko aldean kategoria eta bakoitzari dagokion udalerrria idatziko dira. Gutunazal barruan ipuina eta beste gutunazal txikiago bat sartuko dira; azken horretan jarriko dira izen-abizenak, helbidea, adina eta telefonoa.

Kategoria bakoitzeko sari bat emango da. Horrezaz gainera, bi akzesit emango dira kategoriako eta herriko. Saritutako lanak Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatearen esku geldituko dira, eta horrek lanen kopiak egiteko eta zabaltzeko eskubidea izango du. Gainerako lanak urtarrilean zehar batu ahalgo dira Mankomunitatean. Sariak noiz eta non banatuko diren aldeaz aurretik jakinaraziko da.

## Porrotxek eta Marimototsek abenturaz beteko dute Zamudio urrian

Porrotx eta Marimotots pailazoek Urteak bete, abenturak bizi ikuskizuna aurkeztuko dute urriaren 20an, Zamudion. Pailazo-taldeak 35 urte bete ditu eta saioa horren ospakizuna izango da. Gainera, azpimarratuko dute urteak betetzea garrantzitsua dela, baina are garrantzitsuagoa dela abenturak bizitzea. Lagatzen euskara elkarrekin antolatuta, ikuskizuna 18:00etan izango da kiroldegian.

Sarrerak zortzi euroan ipiniko dira salgai eta urriaren 1etik 19ra bitartean eskuratu ahalgo dira hurrengo leku hauetan: [www.zamudio.eus](http://www.zamudio.eus) webgunean (jarduerak eta bonoak), Zamudioko estankokan eta liburu-dendan eta Derioko Uribe okindegian (Aldekona). Lagatzaren bazkideek, bestalde, urriaren 2tik 4ra bitartean hartu ahalgo dituzte sei euroan, euskara elkarrekin egoitzan.



Centro Dental  
**Txorierri**

**Rocío Astorkia Bordegaray**  
Col. nº 48000759

**Ainhoa Rodríguez Mella**  
Col. nº 48001337

**Igone Nieto Hernández**  
Col. nº 48001462

Mitxine 7, behea - 48150 Sondika  
(geltoki aurrean)  
Tfno.: 944 711 639 - Larrialdiak: 670 985 885  
[www.cdtxorierri.es](http://www.cdtxorierri.es)

**ORTODONCIA21**

**ZAMUDIO-DERIOKO  
LURLANGILEEN ETXEA**

Santi Mami auzoa, 1  
Tel.: 94 454 10 06  
Faxa: 94 454 12 15  
48170 Zamudio (Bizkaia)

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA  
1961 - 1990

COOPERATIVA AGRICOLA GANADERA  
ZAMUDIO BERRO

**SARRIKOLA  
OGITEGIA**

Euskal pastela  
Baserriko ogia  
Bizkotxoak  
Hainbat tarta

Sarrikola, z/g Larrabetzu  
Tel.: 94 455 83 37  
619 78 58 84



## Ondarearen Europako Jardunaldiak, Txorierrin

“Ondarea bizirik, patrimonio vivo, patrimonio inmaterial” lelopean, urrian Ondarearen Europako Jardunaldiak izango dira 23. aldiz Bizkaian. Guztira, 150 kultura-jarduera baino gehiago egingo dira lurraldeko 70 udalerritan. Jarduerak Txorierrin ere izango dira, udalerririk horien artean baitaude Derio, Loiu eta Zamudio.

Bizkaiko Foru Aldundiak antolatuta, aurtengo edizioaren helburua da hurrengo hauei lotutako kultura-ondarearen balioa azpimarratzea: ohiturak, ahozko adierazpenak, usteak, jaiak, sukaldaritza, errituak, ogibideak, artisautza, dantzak, musika eta jolasak. “Lurraldearen nortasunaren parte baitira, eta bizirik iraun dezaten, zaindu eta babestu behar baitira”.

Derion, Bizkaiko Elizaren Histori Artxi-boaren eskutik, ahozko historiari buruzko tailerra egingo dute urriaren 24an, 16:00etatik 18:00etara. Tailerrean galderak egiten ikasiko da, erantzunak biltzen, prozesatzen, gordetzen eta zabaltzen. Izena emateko, 944 062 493 telefono-zenbakira deitu daiteke, edo katalogo@aheb-beha.org helbide-elektronikora idatzi.

Loiuko Urdaneta ikastetxean, bestalde, “Munduari bira zuhaitzen bidez” bisita gidatua eta tailerra antolatu da urriaren 7rako eta 21erako. Ekintza

10:00etan hasiko da, eta Arboretumetan dauden espezieetatik abiatuta, ibilbidea egingo dute kontinente guztietan zehar. Gainera, ekintza osagarriak egongo dira txikientzat, hala nola inurri-begiekin ikustea eta zuhaitzen taupadak entzutea. Landareetatik pigmentuak eta esentziak ere aterako dira. Informazio gehiagorako, irailaren 30etik aurrera idatzi behar da museo.ciencias@colegiourdaneta.com helbide elektronikora.

Zamudion, azkenik, *Zamudioko baserriak* argitalpenari buruzko hitzaldia egingo da urriaren 21ean, 11:00etatik 13:30era. Hitzaldian, herriko baserrien izenak emango dira ezagutzera, eta izen horien balioa nabarmendu. Era berean, baserrietako bizilagunek, hezkuntzako eta administrazioako erakundeek eta zamudioztar guztiek, ahoz zein idatziz, baserrien izenak zabaltzearen garrantzia azpimarratuko da. Izena ematea 944 060 990 telefono-zenbakira deituta egin daiteke.

Egitasmoan parte hartuko duten udalerrietako jarduerak Ondarearen Jardunaldien katalogoan jaso dira. Agenda [www.ondareabizkaia.eus](http://www.ondareabizkaia.eus) webgunean ere kontsultatu daiteke, eta erreserbak online egin.

## Derion, 137 proposamen aurkeztu dira parte-hartzeko aurrekontuetara

Uztailaren amaieran itxi zen 2024ko aurrekontuetara proposamenak aurkezteko epea, eta hango udalak jakinarazi duenez, parte-hartzea inoizkorik handiena izan da. Horrela, ia ehun pertsonak egin dute proposamena eta orotara 137 egitasmo proposatu dira. Batez ere kirolari eta hirigintzari lotutako proposamenak egin dira, % 33 arlo bakoitzean.

Era berean, adin txikikoei lotutako gaiak ere aurkeztu dira (% 15), kulturari (% 11), hirugarren adinekoentzako zerbitzuei (% 5) eta osasuna eta ingurugiroa (% 4). Proposamenen bideragarritasuna aztertuta, urriaren 2tik 8ra izango da proiektuak bozkatzeko epea.

## WhatsApp taldearen harpidedunen arteko zozketa

**Miren Apraiz Artetxe** da iraileko irabazlea eta Baserri Antzokian lagun birentzako bazkaria jasoko du sarritzat. WhatsApp taldean sartzeko eta Txorierriko albisteak jasotzeko, idatzi ALTA hitza eta bidali whatsapp mezua **747 406 561** telefono-zenbakira.



**Fle-apaindegia**  
M<sup>a</sup> Antonia Llodio TXP  
Tasienko etorbidea, 6  
Tel.: 94 452 02 70  
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

**yedra floristas**  
Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia  
Telefonoa: 94 453 14 57 - [yedrainterflora@hotmail.com](mailto:yedrainterflora@hotmail.com)

**Enaitz**  
Ogitartekoak  
Anoak  
Plater konbinatuak  
94 455 42 15  
Garaioltza, 74  
48196 Lezama



## Antzerkia eta tailerrak antolatu ditu Garrasiak

Garrasia Sondikako talde feministak 'Sondika feminista' egitaraua antolatu du urrirako, eta ekintzaz beteta etorriko da. Horrela, urriaren 1ean, Mirari Martiarenaren eta Idoia Torregaraireren *Luze eta motz* antzezlanaren ikusteko aukera egongo da 18:30ean, Sondikako Kultur Etxean. Juncal Alzugaray fisioterapeutak gidatuta, bestalde, bi tailer izango da Kultur Aretoa 1ean. Lehena urriaren 24an, 18:30ean, izango dira eta bertan menopausia izango dute hizpide. Bigarrena, hilaren 26an, 18:30ean, izango da eta haundunaldiaz eta erditu ondorengoaz mintzatuko dira.



## Chiapasekiko elkartasuna Ve



Abentura ederra bizi izan zuten Larrabetzuko lau lagunek eta Deustuko beste lagun batek abuztuan. Izan ere, Hondarribitik Santiago de Compostelara bitartean 900 kilometro inguru egin zituzten, Chiapasen komunitate zapatistek jasotzen dituzten paramilitarren erasoak salatuz. Bidaia oso modu berezian egin zuten, vespino motorren gainean, eta ibilbidean familia izan zuten bidelagun.

Abentura honen protagonistak dira Atharratz Garcia, Antxon Zorrozueta, Javi Herran, Mikel Tamayo eta Ivan Arias, eta beren bikotekideak eta umeak. Kontatu digutenez, 2022ko urrian hasi ziren egitasmoa mamitzen. Haietako bik motorrak konpontzen dituzte, eta vespinoak erosi, konpondu, eta bidaia egiteko proposamena egin zieten gaine-rakoei; azken horiek proposamena onartu

Izen-abizenak: \_\_\_\_\_

IBAN+Bankuko 20 zenbakiak: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_

e-posta: \_\_\_\_\_

Telefonoa: \_\_\_\_\_

Urteko kuota, 40 €: \_\_\_\_\_

Beste bat: \_\_\_\_\_

Kupoia bete eta hona bidali:

Aikor! aldizkaria  
Aresti kalea 2, behea  
48170 – Zamudio

Bestela, mezua bidali:

747 406 561

Bestela, sartu:

www.aikor.eus

**IZAN**  
aikor!  
lagun



# Vespino gainean

zuten, nola ez! Erabilitako produktuen *marketplace* batean erosi zituzten bost vespino, eta eguazteneko batzen ziren herriko poligono bateko partzela batean, motorrak konpontzeko; egitasmoari ipinitako izena, hain zuzen, konpontze-lanetan ibili diren lekuari dago lotuta: Khamalau.

Bestalde, lagunetako bat Lumaltik Herriak gobernuz kanpoko erakundearen (GKE) kidea da. GKE horrek kooperazio-proiektuak egiten ditu Chiapasen, Guatemalan eta El Salvadorren, eta gure protagonistek pentsatu zuten bidaia baliatu ahal zutela komunitate zapatistek elkartasuna adierazteko eta jasotzen dituzten paramilitarren erasoak salatzeke. Bidaiak, gainera, familia-kutsua ere edukitu, haiekin batera errepidean bikotekideak eta umeak ibili direlako; au-toan, hala ere.

Hondarribitik abuztuaren 5ean abiatu ziren Santiago de Compostelara, eta helmugara hilaren 9an ailegatu ziren. Bidaia bost etapatan egin dute: Hondarribitik Larrabetzura; Larrabetzutik Santillana del Marrera; Santillana del Marretik Gijónera; Gijónetik Ribadeora eta Ribadeotik Santiago de Compostelara. Etapetako bat edo bi bikotekideek egin zituzten vespinoen gainean. "Gijónen komunikatu bat irakurri genuen Mexikoko

kontsulatuaren aurrean, komunitate zapatistek bizi duten egoera salatzeke, eta testua bertan utzi. Era berean, Santiago de Compostelan geundela gutuna bidali genuen Mexikoko enbaxadara, Madrilera".

Abenturaz eta ezustekoz betetako bidaia izan da. "Motor zaharrak dira eta arazo eta matxura asko izan dituzte ibilbidean zehar: ozta-ozta ailegatu dira helmugara. Eskerrak gutako bat mekanikari trebea dela eta matxurak konpondu ahal izan ditugula!". Ahal moduan konpontzen zituzten motorrak, baina batez ere pasatu diren herrietako jendearen solidaritatea eta jarrera azpimarratu dute. "Motorrak konpontzen lagundu digute, eta piezaren bat behar bagenu, hori topatzen. Are gehiago, euren motorren piezak eman dizkigute, eta azken-aurreko etapan, Ribadeon, gaua eta nahiko berandu zela,



baserri bateraino lagundu ziguten motorretako batek behar zuen pieza baten bila, hurrengo egunean Santiagora abiatu eta bidaia amaitu ahal izateko". Gau baterako ostatua topatzea ere zaila izan da, baina familiek emandako laguntza logistikoari eta egindako kudeaketei esker lortu zuten guztiontzako aterpea topatzea.

Bizkarrean kilometro asko eta hainbat pasadizo zituztela ailegatu ziren Santiago de Compostelara. Helburuari helduta, landetxe batean eman zituzten hurrengo lau egunak, indarrak berritzen eta hurrengo abentura pentsatzen. Etxera itzultzeko, furgoneta handia hartu zuten alokairuan. Vespinoak bertan sartu, eta egindako kilometroak atzera egin zituzten. Orain, motorrak prest ipini beharke dituzte hurrengo abenturarako.



**ADARVE KAFETEGIA**  
Gosariak  
Plater konbinatuak  
Pintxoak  
GIRO ONA  
Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

**ASTIKENEMOTOR**  
www.ASTIKENEMOTOR.com  
DERIO - 946 451 781

**Sondigarbi GARBITEGIA**  
ITURRIGANE, 2 EGUNERO  
635584941 8:00-22:00

**Arantza Amondarain Lasa**  
Ginekologoa  
Tzarren elorbidea, 9-4  
413. bulegoa  
48160 Derio  
Telefonoa eta faxa  
94 454 44 98  
a.amondarain@euskalnet.net

**auzoKide**  
Finken administratzailea  
LORENA GAMBOA AGUIRRE  
Txorisolo 4, behea B 634 410 470  
48150 SONDIKA auzokidefincas@gmail.com

**tik tak**  
EGUNEKO MENUA  
lehenengo platera  
bigarren platera  
postres  
ogia  
edaria 9€  
T: 94 454 55 55  
Bestorrene 5, Behea  
48160 DERIO

# Esther Apraiz Derioko alkatea da EUDELeko elkarteberu berria

Euskal udalerrietako alkateek Esther Apraiz Derioko alkate jeltzalea izendatu dute EUDELeko elkarteberu. Izendapen-ekitaldia irailaren 19an egin zen Tabakaleran, 2023-2027 agintaldiko lehen Batzar Orokorrean. Udalen eta euskal herritarren erronka amankomunen aurrean, Apraizek EUDELen hurbiltasun- eta adostasun-balioak defendatu zituen bertan.

Gorka Urtaranen lekukoa hartu du Apraizek. Izendapena EAJK, EH Bilduk, PSE-EEK eta talde independenteez egindako akordioari esker izan da. Bestalde, Nagore Alkorta Azpeitiako alkateak (EH Bildu) eta Jose Antonio Santano Irungo alkateak (PSE-EE) presidenteorde jarraituko dute.

Izendapena eskertu, eta indartsu sentitzen dela esan zuen Apraizek batzar orokorrean, eta badakiela karguak erantzukizun handia eskatzen duela. "Udalerrien ahotsa da EUDEL, plurala eta partaidetzakoa, eta tokiko autonomiaren eta finantza-beregaintasunaren berme-lana egiten du". Era berean, elkarrizketa

eta adostasuna zaintzen jarraitzeko proposamena egin zuen, bai gobernu-organoetan, bai foro instituzional eta lantalde guztietan, batera lan egiteko gure helburu amankomunen, herritarren ongizatearen eta bizi-kalitatearen alde".

Biztanleria urriko udalerrri bateko agintari gisa, pertsonengandik hurbilen dagoen politika defendatu zuen, eta erantzukizun berritik horri lagunduko diola esan. Horrezaz gainera, adierazi zuen he-

erriak eta hiriak trantsizio hirukoitzaren agertoki direla: soziodemografikoa, digitala eta ingurumenekoa. "Beraz, tokiko gobernuok eraldaketaren eragile nagusiak izan behar dugu beste erakundeekin batera". Azkenik, hiru proposamen egin zituen: udalgintza feministaren aldeko apustua egitea, herritarrekiko konfiantzazko zubiak eraikitzea eta lankidetzatza instituzionala bultzatzea.




## 'Beste begiradak', Derioren buruzko ingurumen-pertzepzioa ezagutzeko

"Beste begiradak" argazki komunitarioren erakusketa urriaren 15era arte ikusgai egongo da Derioko Kultur Birikan. Erakusketa da Emaús Gizarte Fundazioaren, APNABI Autismo Bizkaiaren eta Lantegi Batuakuen arteko parte hartzeko prozesu baten emaitza, eta, sustatzaileek azaldu dutenez, helburua da "historikoki isilarazi diren eta sarritan ingurumengaei buruzko eztabaidetatik baztertu diren pertsonen Derioren buruz duten ingurumen-pertzepzioa ezagutzeko".

Argazki-erakusketa Hazi eta Garatu proiektuaren baitan garatu da; proiektu hori Emaúsek sustatu du Bizkaiko Foru Aldundiaren babesarekin. "Xedea da,

ingurumenaren arloan, Derioren alde positiboak zein negatiboak bere baitan hartzen dituen partaidetzako diagnostiko bat egitea, baina ez ikuspegi zientifiko batetik, baizik eta ikuspegi pertsonaletik eta mota honetako azterketetan parte hartzeko aukera gutxi duten pertsonen begiradatik".

Erakusketa 20 argazki osatzen dute eta egileak dira aurreko lehenengo aipatutako elkartearen erabiltzaileak. Egileek DAT Foto elkartearen kideen laguntza izan dute argazkiak egiteko. Argazki bakoitzarekin batera egileek eurek eskuz idatzitako hausnarketa ipini da; Butroi Bizirikien Transición elkarteak lagundu die hausnarketa egiten.





## Bizkaiko Bertsolari Txapelketa urriaren 1ean hasiko da Mungian

Txapelketa sei kanporaketak, hiru finalurrekok eta finalak osa-tuko dute, eta lehenengo kanporaketa urriaren 1ean izango da Mungian; finala, bestalde, abenduaren 16an jokatu da Bilboko Bilbao Arenan. Leire Etxebarria Gaztelu larrabetzuarra epaile ibiliko da txapelketan zehar; eta Joseba Etxebarria Uriarte larrabetzuarra, antolatzaile-lanetan.

Kanporaketak urriaren 1etik azaroaren 1era bitartean egingo dira Mungian, Gernika-Lumon, Arrigorriagan, Erandion, Igorren eta Lekeition. Finalurrekoak Berriren, Santurtzin eta Lemoan izango dira azaroaren 11n, 18an eta 25ean, hurrenez hurren; eta finala Bilbon, abenduaren 16an.

Kanporaketetan 36 bertsolarik kantatuko dute: Udabarria Bertsotanetik sailkatutako 30 bertsolarik eta 2021eko finalurrekoetan kantatu zuten beste seik. Finalurrekoetako fasera 11 bertsolari sailkatuko dira eta 2021ean finalista izan



zirenak. Hiru finalurrekoetako irabazleek eta puntuazio altuena lortzen duten beste bostak sailkatuko dira finalera.

Saioetako sarrerak [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) webgunean erosi daitezke. Sarrerrarik geratuko balitz, egunean bertan erosteko aukera egongo litzateke txarteldegian. Txarteldegia 16:00etan zabalduko da saioetan, finalean izan ezik: finalaren egunean 15:00etan zabalduko da.

## Bertoko Produktuen Azoka Larrabetzun

Urriaren 22an, Bertoko Produktuen Azoka izango da Larrabetzun. Gurrupide elkarteak antolatuta, azoka 24. aldiz egingo da aurten, "bertoko produktioa eta salmenta sustatzeko", adierazi dute antolatzaileek. Era berean, baratzezainen eta ganaduzaleen lanaren balioa azpimarratuko da, eta eskertu. "Elkarte berria sortu da aurten: Estramiñe. Ganaduzaleen elkarte da, abeltzaintza sustatzeko jaioa. Beste eragile bat da, lehen sektorearen neurriak eta politikak hartzen laguntzeko; elkarlanean arituko gara".

Ohikoa denez, postuak, produktuak, taloa, txakolina eta giro atsegina izango da Larrabetzuko plazan. Horrezaz gainera, lehiaketak egingo dira kalabazaren pisua eta indaba-aleen kopurua asmatzeko. Bestalde, eta azokaren ekintzen baitan, Leire Milikuak Lur gainean eta itzal azpian liburuak aurkeztuko du azaroaren 2an, 19:00etan, Anguleri Kultur Etxean. Milikua arkitektoa da, eta agroekologian eta genero-berdintasunean aditua.

**TALDEA**  **GURENA**  
ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK

**ZURE NEURRIRA**



**BABESPEKO  
APARTAMENTUAK**  
600 euro  
asistentzia sanitarioa (24 ordu)

**EGONALDIK  
EGOITZEAN**  
egunean  
gauean  
asteburuetan

Unbe txiki bidea 9  
LOIU 48180  
(Urdaneta ikastetxearen aurrean)

**944 530 049**  
**[www.gurena.com](http://www.gurena.com)**

## Dirulaguntza, Txorierriko kiroldegia erabiltzen dituzten loiuhtarrei

Loiuko Udalak dirulaguntza emango die Txorierriko kiroldegietara joaten diren loiuhtarrei. Dirulaguntza herrian erroldatuta daudenek eskatu ahaliko dute, eta eskatzaile bakoitzak dirulaguntza bakarra eskatu ahaliko du: kiroldegi baten baino gehiagoren erabiltzailea bada, abonurik garestiena hartuko da kontuan. Eskaerak irailaren 13tik urriaren 13ra arte aurkeztu ahaliko dira udaletxean, eta horretarako inprimakia bertan edo [www.loiu.eus](http://www.loiu.eus) webgunean eskuratu ahaliko da. Loiuko Udalak 3.600 euro bideratuko ditu dirulaguntza hauetara.

## Ia 600 lagun, Larrondoko lasterketan

Irailaren 17an, familia-lasterketa solidarioa egin zen Larrondon (Loiun). Aurten ia 600 lagun batu dira bertan. Ekintzak helburu bikoitza zuen: familietako kideek eta lagunek elkarrekin kirola egitea bultzatzea eta ekimen solidarioei laguntzea. Azken helburu horri dagokionez, izen-emateen bidez batutako dirua IQUITANZ gobernuz kanpoko elkarteari eman diote, guztira 1.120 euro. Elkarrekin egiten dituzten garapen-bidean dauden herrialdeetan.

## Bizkaiera ikastaroa antolatu du Tximintxek

Tximintx Derioko komunitateak bizkaiera ikastaroa antolatu du. Ikastaroa urritik maiatzera izango da, eta irakaslea, Andoni Solorzano Orue. "Batez ere ahozkoa landuko dugu, baina idatzizkoa eta gure berbak batuan sartzeko pistak ere emango dizkigu irakasleak. Ikastaroa ahalik eta ludikoena izango da eta jolasak eta bestelakoak izango ditugu". Ikastaroa hilean behin izango da, 18:30etik 20:30era. Matrikulak 60 euro balio ditu; 50 euro, Marikobasoko bazkideentzat. Leku mugatua dago. Izena emateko eta informazio gehiago jasotzeko, [tximintx@gmail.com](mailto:tximintx@gmail.com) helbide elektronikora jo daiteke.



## Sanmiguelak Derion eta Lauroetan

Derioztarrak orain dela egun batzuk sanmiguelak gozaten hasi baziren ere, oraindik dute zer egin eta disfrutatu, hango jai-batzordeak herritar guztientzako ekintzak antolatu ditu eta, hala nola musika eta gastronomia-lehiaketak. Bestalde, Lauroetako jai-batzordeak ere egitarau zabala prestatu du.

### Derio

#### Irailak 29, barikua

19:00 Joselontxos txaranga txosnetan.  
20:00 Txitxi-burruntzia.  
22:30 Gala afaria.  
00:00 Kanpai-hotsak.  
Dj Edu + Dj Alain.  
02:00 Montaditoak.

#### Irailak 30, zapatua

10:00 Traka.  
14:00 Indaba-jana.  
15:00 Postrea.  
16:00 Bingo berezia.  
20:00 Play-back lehiaketa.  
00:30 Vulkano orkestra.  
Dj Porty.

#### Urriak 1, domeka

10:00 Traka.  
12:30 Umeentzako marrazki-lehiaketa.  
13:00 Bermuta.  
15:30 Jai-batzordearen bazkaria.  
17:30 Konpartsen joko olinpikoak.  
19:00 Jaietako argazkiak eta bideoak.  
19:30 Txokolatada.  
20:00 Sariak banatzea eta jaiak amaitzea.

### Lauroeta (Loiu)

#### Irailak 29, barikua

12:00 Meza.  
13:00 Briska txapelketa.  
Poteoa.  
19:00 Triki- eta pintxo-poteoa.  
20:00 Bertso-saioa: Etxahun Lekue, Oihana Iguaran, Onintza Enbeita, Sustrai Kolina eta Xabi Paia.  
Talo eta txistorra.  
22:00 Erromeria.

#### Irailak 30, zapatua

09:00 XVI. Mendi-ibilaldia.  
13:00 Mendi-ibilaldiaren kopaua eta sariak ematea.  
18:00 Umeentzako jolasak, poniak eta zirku-tailerra.  
Tortilla txapelketa.  
20:00 Tortillak aurkeztea.  
20:30 Xaibor.  
21:15 Saiheski- eta txistorra-jana.  
22:00 Xaibor, nagusientzat.

#### Urriak 1, domeka

Umeentzako puzgarriak.  
11:00 Kalejira.  
12:00 Meza.  
13:00 Sondikako Olagüe abesbatzaren emanaldia.  
13:30 Txori Bikers elkartearen erakustaldia.  
15:00 Herri-bazkaria.  
Nafarroa taldea, bazkalostean.  
20:00 Zozketa.  
20:30 Txokolatea eta jaiak amaitzea.



## Ideia Ekintzaileen Bideo Lehiaketa bosgarren aldiz egingo da

Politeknika Txorierriekin batera, EGAZ Txorierri Ideia Ekintzaileen Bideo Lehiaketa antolatu du bosgarren aldiz. Lehiaketa Bizkaiko Foru Aldundiak eta Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak sustatutako Gaztedi Txorierri programaren baitan dago, eta bertan Politeknika Txorierriko ikasleek eta 16 urtetik 29 urtera bitarteko txorierritarrek har dezakete parte. Izena ematea azaroaren 15era arte egin daiteke.

Ideia irabazleak 500 euroko txartela jasoko du saritzat, produktu elektronikoak erosteko; bigarrenak eta hirugarrenak 350 eta 150 euroko

txartelak jasoko dituzte hurrenez hurren. Ideiak baloratzeko orduan, epaimahaiak hurrengo hizpide hauek hartuko ditu kontuan: originaltasuna, sormena, komunikazio-metodo egokia, sexuaniztasuna eta dibertsitate funtzionala duen pertsonen aukeraberdintasuna, txorierritarren bizitza hobetzea, tokiko sareetan parte-hartzea eta ingurumen-jasangarritasuna. Gazteria.eus webgunean informazio guztia topa daiteke.

Aurreko edizioan, OGAGA egitasmoak irabazi zuen lehiaketa. Talde irabazleak zakarrontzi adimenduna aurkeztu zuen

lehiaketara: zakarrontzi hori gai da poltsa beteta dagoen antzemateko, poltsa ixteko eta bere ordeztu beste bat jartzeko. Bestalde, INFOBEACH egitasmoak, hondartzei buruzko informazioa kontsultatzeko aplikazio mugikorak, bigarren saria lortu zuen; eta EKOLATUA egitasmoak, klima-aldaketari eta garapen iraunkorrari buruzko kontzientziakzio-ekimenak, hirugarrena.



## Besteak beste, zorroak eta kargagailuak topatu dituzte Gaztelumendin egindako lehen indusketa-lanetan



Edestiaurre Arkeologia Elkartea indusketa-lanak egiten dabil Gaztelumendin. Elkartek Gerra Zibileko lau metrailadore-kokagune aztertuko ditu, eta dagoeneko lanak amaitu dituzte haietako batean. Bertan egindako aurkikuntzak aurkeztu berri dituzte. Lekuan topatu dituzte kartutxoak, zorroak, hiru kartutxoko kargagailu bat, lau kartutxoko

beste kargagailu bat, aluminiozko katilu bat, kargagailu bat eta pistola bateko kolpekarria. "Testuinguru arkeologikoari esker, materialen «ikuspegi fotografikoa in situ» dugu, duela 86 urte han utzi ziren moduan".

Ikerketa-lana egiteko, hiru alderdi hartu dira kontuan: lehenengo eta behin, artxibategietatik eta Larrabetzuko

biztanleengandik jasotako datuak, aurkikuntza arkeologikoekin eta arkitektonikoekin erkatuko direnak; bigarrenez, testuinguru arkeologikoa, "zeinak ematen baitigu lekua defendatzen zebiltzala gudariak nola jokatu zuten eta zer gertatu zen argazkia"; eta azkenik, topatutako dokumentazio arkitektonikoak, "landaretzak eta hormigoiak estalita 86 urte eman ondoren, berriro agerian dagoena". Gaztelumendiko lehen metrailadore-kokagunean egindako aurkikuntzak argitaratuko dira *Arkeoikuska* argitalpenean eta *Kobie* aldizkarian.

Indusketa-lanak uztailearen amaieran hasi zituzten eta bi aste iraun zuten. Edestiaurre elkartekoekin batera, hainbat larrabetzuarrek parte hartu zuten indusketa-lanetan. Datorren urtean lanak egingo dituzte bigarren eta hirugarren kokagunetan; eta 2025ean, laugarren kokagunean. Azaldu dutenez, Gaztelumendikoa da Burdin Hesiko gunerik garrantzitsuenetakoa, 1937ko ekaineko batailan frankistek hesia bertan hautsi zutelako; hortaz, espero dute aztarna arkeologiko inportanteak topatzea.

# Artea norberaren orekarako

JON ANDER CAMPOS | gizarte-hezitzailea eta artista

Loiuko gazteak MakHaziart egitasmoa ipini du martxan. Hori gizartean eta hezkuntzan esku hartzeko ekimena da, eta artea baliatzen du hainbat alderdiri heltzeko, hala nola gizarte-arazoei, osasun mentalari, autoestimuari eta garapen pertsonalari. BBK Ekin programak egitasmoa saritu du aurten, eta loiuztarra buru-belarri dabil lanean, hura aurrera ateratzeko.

*t: Itxaso Marina / a: Isionoya*

MakHaziart proiektuak Camposen lanean bertan du jatorria. Gizarte-hezitzailea artean ikasketak amaituta ez zituela, 19 urterekin, hasi zen lanean; harrezkero 10 urte pasatu dira eta hainbat arazo dituzten pertsonekin egiten du lan. "Oso giro kutsatu batean ibiltzen gara eta beti saiatzen gara estimulu politak eta atseginak topatzen. Harreman estu-estua dut artearekin eta hasi nintzen lanean arte-tailerak antolatzen", kontatu digu. "Tailerren helburua da pertsoneri gauzak ulertzeko eta komunikatzeko tresnak ematea, eta arreta bereziki buruko osasunean ipintzen da. Horretarako, lantzen ditugu norbanakoaren garapena, emozioak adieraztea, motibazioak eta lortu nahi diren helburuak. Nolanahi ere, tailerretan ez dugu «egundoko txaparik» botatzen; sententzietan bitartez egiten dugu lan. Argizari-arkatzak erabiltzen ditugu, akuarelak, espraiak, akrilikoa, buztina... Artelan politak egiten ditugu, horma-pinturak eta guzti. Baina benetan polita da halako ekimenek duten harrera eta parte-hartzaileengan aurrerapauso txikiak ikustea. Izan ere, batzuetan hitzak erabilita azaldu ezin duguna errazago azaltzen dugu modu plastikoan".

Halako dinamika adin-tarte guztietako pertsonekin saiatu ditu eta emaitza beti izan da positiboa: nagusiekin, helduekin, gazteekin, nerabeekin zein umeekin. Lanean izandako esperientziei eta egindako tailerrei forma eman eta MakHaziart egitasmoan batu ditu. Egitasmoa lanetik harago eramanez nahi du, eta, hortaz, eskolekin, udalekin eta gizarte-izaerako elkarteekin harremanetan ipintzeko as-





moa du. "Pandemian ikusi genuen gutariko bakoitza orekaren bila ibili ginela, eta batzuek ekin edo berriro ekin zioten margotzeari, idazteari, musika egiteari... Beraz, olatu hori aprobetxatu, eta egunero-kotasuneko zalantzei eta gatazkei aurre egiteko egokia izan daitekeen tresna hau eskainiko dut".

Loiuztarrak bereziki azpimarratu nahi du buruko osasuna zaintzearen garrantzia. "Kontuan hartu behar da, buruko edo bestelako arazoak direla eta, Espainiako estatuan urtean 4.000 pertsonak baino gehiagok euren buruaz beste egiten dutela.

*"Lanari, familiari... lotutako itxaropenak ditugu, baina oso gutxitan sakontzen dugu buruko orekan edo emozioen adierazpenean"*

Egitasmo honen bidez, arazo edo egoera horiei aurre egiteko, edo prebenitzeko, lagungarriak diren tresnak eskaini nahi ditut; ze guztiok ditugu lanari, familiari... lotutako itxaropenak, baina oso gutxitan sakontzen dugu buruko orekan, norbanakoaren garapenean edo emozioen adierazpenean... Eta, azken batean, horrek zer ikusi handia du gainerakoekin eta inguruarekin erlazionatzen garen moduarekin".

#### «Potentea»

Loiuztarra ia «nahi gabe» da gizarte-hezitzailea. "Zer ikasi erabakitzeako ordua

*"Batzuetan aurrerapauso txikiak ikusten dira, eta gustukoa da beste pertsona batzuei lagundu ahal diezula sentitzea"*

ailegatu zenean pentsatu nuen irakasle-ikasketak egitea, baina ni neu ikasle trebea ez naizenez, berehala baztertu nuen aukera hori (kar-kar). Pertsonekin lan egitea, hala ere, izugarri gustatzen zait, eta Gizarte Hezkuntza aukeratu nuen". Zenbait zentrotan ibili da lanean, oso bestelako arazoak dituzten lagunekin; justizia-arazoak, buruko gaitzak, menpekotasunak... "Lan «potentea» da, pertsona horiek euren «motxila» dutelako; eta zuk, zurea. Baina asko gustatzen zait lana, nahiz eta askotan zuk dena eman eta ordainean ezer ez jaso. Beste batzuetan, ordea, aurrerapauso txikiak ikusten dituzu, eta gustukoa da beste pertsona batzuei lagundu ahal diezula sentitzea, eta orain landatutako haziek etorkizunean euren fruituak eman ahal dituztela, eta pertsona horiei egunerokotasunean lagundu". Udako oporrak amaituta, gizarte- eta hezkuntza-zentro komunitario batean hasi da lanean. "Gazteekin ez ezik euren familiekin, eskolarekin, auzokideekin... ere lan egiten dugu, kirol- eta kultura-ekintzez baliatuta eta gazteei inguru horietan garatzeko tresnak emanez".

## Jakin-mina

Gogora ekarri duenez, Olentzerok beti ekartzen zizkion margoez, akua-relez, koloretako arkatzez betetako estutxeak. "Orduak eta orduak ematen nituen marrazten eta margotzen, eta eskolako liburuak eta koadernoak ere marrazkiz beteta nituen. Nerabezaroan, identitate bila horretan, graffitiak ere egiten hasi nintzen". Autodidakta da artean, eta beti dabil besteek egiten dutenari eta erabiltzen duten teknikari adi, zer ikasi dagoelako eta oso jakin-min handia duelako. Margolanetan errealismoa eta abstraktua nahasten ditu, eta inspirazioa oreka ekartzen dioten gauzetan topatzen du, batez ere itsasoan. Margolanaz gainera, olerkia eta mikroipuinak ere idazten ditu.

Kirola da bere bizitzaren beste ardatz bat. Errugbi-jokalaria izan da eta gaur egun surfa egiten du. Herrian gazteentzako aisialdi-ekintzarik ez egoteak bultzatuta, hainbat lagunekin



batera Loiuko Bakarrak gazte-elkartea sortu zuen duela urte batzuk. "Oso ahalegin kolektibo garrantzitsua egin genuen gazteok; hori ezean ezinezkoa izango zatekeen elkartea aurrera ateratzea. Adierazi nahi genuen gazteok ez geundela bakarrik parrandan ibiltzeko, eta laguntzarik jasoz gero, gai ginela hainbat ekintza egiteko, herria egiteko; adibidez, aurtan antolatutako Arte eta Kultura Azoka".

Bere margolanak, olerkiak eta ipuinak hainbat gunetara eraman ditu ikusle eta entzuleekin partekatzeke, eta espero du etorkizunean haiek partekatzen jarraitzea. "Oso polita da ikustea zuk sortu duzunak besteak hunkitzen dituela". Idatziak liburu batean jasotzea ere gustatuko litzaioke. Hala ere, lehentasuna du gaur egun: MakHaziart egitasmoa aurrera ateratzea.



## Animalien Ongizatearen Lege berria: badakizu zelan eragin ahal dizun?

Etxean baduzu animaliarik? Edo, hala ez bada, izateko asmoa duzu? Irailaren 29a egun garrantzitsua izango da, data horretatik aurrera pertsonen eta maskoten arteko bizikidetzaren arautzen duen araudian hainbat gai aldatuko dira, Animalien Ongizatearen Legea deritzona indarrean sartzen baita. Hona hemen legearen inguruko gako batzuk:

### Esterilizazioa

Nahitaezkoa izango da etxetik kanpo bizi den animalia oro esterilizatzea.

### Animalien berri ematea

Konpainiako animaliak dituzten pertsona guztiak beren jabetza jakinarazi eta maskota identifikatu beharko dute, kasuan kasuko agintariek animalia horien erregistro bat izan dezaten.

Txakurrak, katuak eta huroiak mikrotxip bidez identifikatu beharko dira, eta hegaztiak, berriz, eraztunez.

### Zaintza

Txakurren kasuan, 24 ordu baino gutxiago egon ahal izango dira ikuskapenik gabe, eta gainerakoak hiru egun baino ez.

### Salmenta

Lehen adierazi denez, animalia guztiak identifikatu beharko dira erregistratzeko, baina, horrez gain, txakurrak, katuak eta huroiak ezin izango dira denda espezializatuetan saldu.

### Animaliak haztea

Animalien hazkuntzak kontrol handiagoa izango du eta erregistratutako zaintzaileek eta profesionalak baino ezin izango dute egin.

### Animaliak sakrifikatzea

Akabo sakrifizio bidegabeak. Soilik txosten medikoak baimenduko du animalia bat akabatzea.

### Txertaketa

Animalia guztiak beharrezkoak diren txertoak jarri beharko zaizkie. Adibidez, amorruren aurkako txertoa.

### Txakur arriskutsuak

Txakur arriskutsuen zerrenda erabat desagertuko da. Txakurrak potentzialki arriskutsutzat hartzeko, banakako soziazialitate-azterketa egin beharko da aldeaz aurretik.

### Ikastaroak

Txakur bat izateko, ikastaro bat egin beharko da eta aseguru bat izan. Ehiza-, zaintza- eta lan-txakurrak dituzten pertsonak baino ez dira egongo salbuetsita.

### Isun berriak

Egindako delituaren larritasunaren arabera, zigorrak txikiena 500 euroko isuna izango da eta kasurik larrienetan urte erdiko espetxe-zigorra izateraino hel daiteke.

## Bertoko animaliak, bertoko berbak

Egizue proba, eskatu Txorierriko gaztetxoek izenda ditzatela euren herriko kale eta plazetan ikusten dituzten txorien izenak. Usoa eta zozoa aipatuko dituzte, beharbada. Ostean, agian, bestelakoak: txolarrak, txantxangorria, buztanikara... Gure eguneroko paisaia osatzen duten animaliak dira. Ez dira urruneko lurretako elefanteak eta panterak bezain deigarriak, baina tira. Horiek dira gugandik gertuen daudenak eta, jakina, horiek ere ederrak dira. Bertokoak ditugu eta bertoko izen ederrak dauzkate: *artatxoria* (edo *kurloia*), *txindorra*, *epertikara*... Erabil ditzagun!

Basoan ere badira animalia ezagunak: *kirikolatza*, *lukia* eta *kata-mixarra*. Euskararen globalizazioaren eraginez, bertoko izenak ahaztuta, horiei askok *trikua*, *azeria* eta *urtxintxa* (edo *katagorria*) esaten diete.

Txakurrak direla-eta, sarritan erabiltzen ditugun aditz bi: *zaunka egin* eta *hozka* edo *koska egin*. Ez daukagu beste modurik horiek esateko? Lehenengoak ordain polita dauka gure inguruan: *ahausi egin* (*adausi egin*, batuaz); bigarrena, berriz, modu bitarra esaten da Txorierri: *usigi egin* (*ausiki*, batuaz) eta *haginka egin*.

Bertoko berbak ezagutu eta erabiliz gero erosoago egingo dugu berba txorierritarrek. Ona da beti hango eta hemengo sinonimoak ezagutzea, baina gogoratu: paraje-koak paraje euskera.





# Eskolaz kanpoko ekintzak, bai ala ez?

Gehienoi oporrak amaitu zaizkigu, baita gurasoei eta umeei ere. Klaseak hasi dira, eta, urtero bezala, gure seme-alaben denbora antolatu nahi dugu. Goizetan eskolan izaten dira, baina arratsaldean, zer? Eskolaz kanpoko ekintzetan izena eman?

Gero eta joera handiagoa dago gure seme-alaben arratsaldeak ekintzaz betetzeko. Askok familia- kontziliozkoak egiten dute, beste batzuek haien umeengan jarrera osasungarriak bultzatzeagatik, irakasgai batzuetan errefortzua izateko, edo ohiko irakasgaietan ikasten ez diren gaitasunak garatzeko... Gure seme-alabak eskolaz kanpoko ekintza batzuetan sartzea onuragarria izan daiteke, baina egokia al da gure seme-alabei denbora liberrik ez utzea?

## Denbora librean ere itota, gehiegizko estimulazioagatik

Gai al zara 30 minutuz ezer egin gabe egoteko? Edo telefonoa hartzeko beharra izaten duzu?

Kanpoko estimuluak etengabe jasotzera ohituta gaude, eta ezinezkoa egiten zaigu ezer egin gabe egotea. Gure seme-alabek ere, gero eta estimulu gehiago behar dituzte: bazkaltzen duten bitartean telefono bidez hitz egiten dute; eta etxerako lanak egiten dituzten bitartean bideoak ikusten dituzte. Ezaguna egiten zaizu?

Gaur egungo gaztetxoak gainestimulazioaren garaian jaio dira, eta ez dakite zelan kudeatu estimulazio falta. Hori dela eta eskolan gero eta bideo eta jolas interaktibo gehiago erabiltzen dira, eta denbora librean gero eta ekintza gehiago ematen dizkiegu aukeran. Ez zaie gustatzen asperetzea, eta ez diegu aspertzeko aukerarik ematen.

## Asperdura baloratzeko beharra

Asperdura emozio bat da, eta, funtsean, betetzen ez den garun-estimulazioaren bilaketa bat da. Erakartzen zaituen zerbaiten bila bazabiltza eta ez baduzu lortzen, frustrazio horri asperdura esaten zaio. Baina, zergatik saihesten dugu? Hain kaltegarria al da?

Asperetzen garenean gure atentzia askatzen dugu, eta aukera ematen diogu gure garunari ideia berriak sortzeko,

hau da, sormena sustatzen du. Gainera, asperdurak introspektzioarako aukera ezin hobea eskaintzen digu, gure emozioekin, beldurrekin eta desioekin harremanetan jartzeko aukera. Eta ez ahaztu, garunak atseden hartzeko, beharrezkoa dela egunerokotasuneko erritmotik askatzea eta orainaldiaz gozatzea.

Goian aipatutakoak, asperduraren onura ugarietako batzuk baino ez dira, baina nahikoak asperduraren balioa begi-bistan uzteko, ezta?

Beraz, aurten, eskolaz kanpoko ekintzak aukeratzean, utzi asperduraren kontrako borroka eta kontuan hartu aspertzeko uneak izatearen abantailak.





*t/a: Iñaki Olabarieta eta Jose Angel Mentxaka*

# Kirikiñausiak

Gaur egun lantzean behin eta ia-ia kapritxoaz jaten ditugun arren, gaztainek gosea kentzeko balio izan zuten garai batean. Izan ere, Amerikatik artoa, patata, indaba... ekarri eta jateko horiek orokortu aurretik, ez zegoen hainbeste aukera landatu eta jateko. Garia zen oinarria, baina gariz egindako ogiari aberatsen ogia esaten zitzaion leku askotan, eta pobreek, bestalde, gaztaina-ogiarekin konformatu behar zuten. Jateko era bat zen gaztainak birrindu eta ogi-antzeko bat egitea; eta beste erak gaur egunera arte heldu dira: egosita edo erreta. Apurka-apurka gaztainak erretzeko danbolinak asmatu ziren beheko suan ipintzeko.

Baina gosea kendu ahal izateko, lehenengo eta behin gaztainak batu behar dira, eta iraunarazi. Horretarako, orain dela ehunka urte kirikiñausiak erabiltzen hasi ziren; horiei kirikino-hesiak edo eskortak ere esaten zaie. Kirikiñausiak dira harrizko hesiak, metro batetik bi metrora arteko altuerakoak eta zortzi metroko diametroa ere izan lezaketenak; egurrezko atea jartzen zitzairen. Makilak erabilia gaztainak zuhaitzetatik bota ostean, han gordetzen ziren kirikinoak eta guzti. Han ia urtebete mantendu ahal ziren. Gainera, hesiek basoko animalietatik babesteko ere balio zuten: basurdeetatik, txerrietatik, ahuntzetatik...

Garai batean garrantzi handiko merkataritza egon zen gaztainen inguruan, eta esportatu ere egiten ziren. Gaztainingo ugari zeuden gure basoetan, baina XIX. mendearen amaieratik aurrera desagertuz joan dira gaixotasun baten erruagatik. Datu bat, zeukaten garrantziaz konturatzeko: Gorbeia inguruan 40 kirikiñausitik gora aurkitu dira.



Irukusigieta (Orozko)



Irukusigieta (Orozko)



Lastrabe (Orozko)



Atxurikolanda (Orozko)



## Ibilbide proposamena


Orozkoko Usabel auzo ostein dagoen aparkalekuan hasiko dugu zazpi kilometroko mendi-ibilaldia. Erreka gurutzatuko dugu; Olarte ola izandakoaren ondotik pasatuko gara; eta ezkerreko pista hartuko dugu, antaparara doan kanal zabalari jarraituta. Erreka berriro gurutzatzen dugunean porlanezko pista utziko dugu; eta ezkerretara ikusten den baso bidexkatik jarraituko dugu, errekarantz. Bertan hasiko gara ikusten ibilbide osoan lagunduko diguten seinale-makilak: "Gaztaina eguna" jartzen du makil guztietan.

Bidea ondo hartu badugu, segituan Arearrietako teileria zaharra ikusi siko dugu, teilak egiteko erabiltzen zen la-bea hain zuzen. Aurrera egingo dugu makilei jarraituta. Leku zoragarria da: erreka baten azarna eta era guztietako zuhaitzen gerizpea. Kontuz ibili beharko dugu egurrezko zubitik zein ondorengo eskaileretatik igarotzean, oso egoera egokian ez daude eta. Errota zahar baten azarna utziko ditugu eskuinean, eta laster helduko gara Atxurikolanda kirikiñausira. Erdi estalita dago bidearen eskuinean. Bi kilometro egin ditugu ibilaldiaren hasieratik.

Apur bat aurrerago aukeratu beharko dugu: aurrera jarraitu ala ezkerreko pista hartu, gorantz doana, eta kilometro bateko joan-etorria egin, Saukudui kirikiñausia ikusteko. Nahiko aldapa gogorra da, baina esfortzuak merezi du. Azken metroan kontuz ibili beharko dugu, zeren goazen bidexka utzi eta gaztainondo zaharren ilare jarraituz heldu beharko baitugu. Ez da erraza aurkitzea.

Lehenengo lekura itzulita, errekarari jarraituko diogu. Beste aldera zubi batetik pasatuko gara, eta Lastrabe kirikiñausi handia topatuko dugu, harritarrez eginda dagoena.

Hortik aurrera malda gora hasiko da bidezidorra, sigi-saga batzuk eginez eta une batzuetan Itxinako mendien bista ezin ederragoaz gozatuko dugu. Adi joanez gero inguru honetan beste hiru edo lau kirikiñausi ikus daitezke, erdi estalita eta apurtuta. Beherantz egingo dugu eta porlanezko pista helduko gara. Leku honetan ere merezi du beste aldetik Irukusigietara kirikiñausiraino joan-etorri laburra egitea: hura ere ederra. Porlanezko pistatik beherantz, hasierako aparka lekura helduko gara. Atzean oso ibilbide polita utzi dugu.



LEIRE BEGOÑA  
ULE-APAINDEGIA

MUNICIALE ETORBIDEA, 20  
48160 DERIO  
94 454 26 32

Jarrai lezagu Facebook-en

TABERNA  
**GAZTE**DI

Eguneko menuak  
Ospakizunak

Arebaldia, 141 - 48196 LEZAMA  
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

aldekone  
horts klinika  
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar  
Odontologoa

Urbe 7, behea  
48160 DERIO (Bizkaia)

-Especialitate guztiak zentro bakar batean  
-Aurrekontua doan  
-Especialitatea: umeak

Torrealday

ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA

ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA

GORBEIA MERTZERIA

Gorbeia kalea, 7  
ZAMUDIO  
94 655 90 06

Horts-klinika  
**IDOIA ZUBIETA**

Osasun-zentroa & Horts-estetika  
HORTZ-INPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Areitza doktorea, 11 - 1. esk.  
48011 BILBAO  
T: 944 416 322

Urbe Plaza, 1  
48170 ZAMUDIO  
T: 944 521 370







# “Komikia da nire bigarren ama-hizkuntza”

SUSANNA MARTÍN SEGARRA | komikilaria eta ilustratzailea

Labetik atera berria da *Surflaria*, Susanna Martínek Uxue Alberdirekin batera egin duen azken lana. Martín katalana da eta duela gutxi etorri da Txorierrira bizi izatera, Larrabetzura hain zuzen ere. Komikilari emankorra da eta 13 urteko ibilbidean 20 lan baino gehiago kaleratu ditu adin-tarte guztientzat. Azkena baliatu dugu berari eta bere lanbideari buruz jakiteko.

t: Itxaso Marina

## Zertan datza *Surflaria*?

Uxue Alberdik eta biok komiki-saila egin genuen *Xabiroi* gazteen aldizkarirako, eta lanak liburu bakar batean batu ditugu. Istorioa Zarautzen gertatzen da, surfaren inguruan, eta abiapuntua da pertsona baten desagertzea; oso misteriozkoa da. Uxueren umore beltza nabaria da *Surflarian*, baina nire umore-kutsua ere badago. Izan ere, gidoiari batekin lan egiten denean interpretazioak trukutzen dira: berak ideia bat bidaltzen dizu, zure filotrik pasatzen duzu, eta beste modu batean itzultzen diozu; hori, hain zuzen, da beste pertsona batekin lan egitearen politena.

## Ilustratzaile barik, komikien marrazkilaritzat duzu zure burua.

Aldea dago kontzeptu bien artean. Komikia marrazten duzunean kontatu ere egiten duzu, erabiltzen dituzulako sekuentzialitatea, espazioa, denbora, mugimendua, metafora bisualak, elkarriketak... Ilustrazioa, aldiz, estatikoa da: kontakizun, ideia edo albiste bati laguntzen dio, baina ez da denbora pasatzen.

## Eta noiz erabaki zenuen komikien marrazkilaria izan nahi zenuela?

Komikiak betidanik irakurri eta marraztu ditut, eta gidoiak idatzi: esan ohi dudanez, komikia da nire bigarren ama-hizkuntza. Pirinioetako herrirka batean hazi nintzen, eta garai hartan, gainera, ez zegoen komiki-estudio askorik. Hortaz, edo ilustrazio eta Margolaritzaren goi-

*“Uxueren umore beltza nabaria da 'Surflaria' egitasmoan, baina nire umore-kutsua ere badago”*

mailako gradua ikasten nuen, eta komikia nire kabuz landu, edo Arte Ederrak ikasten nituen, eta komikia ahaztu. Bada, azkenean Historia ikasi nuen eta lizentziatu nintzenean erabaki nuen Llotjan, Bartzelonako Diseinu eta Arteren Goi Mailako Eskolan, ikastea. Pixkanapixkanaka nire gustuen araberrako karrera diseinatzen hasi nintzen: Ilustrazioa ikasi nuen lehenengo eta behin; eta gero, Pintura. Bukatu nuenean ez zen ezer komikiari lotuta ateratzen, eta «zabor-lan» asko onartu nituen...

## Baina komikien mundura ate nagusitik sartu zinen azkenean.

Bloga zabaldu nuen eta bertan nire istorioak argitaratzen hasi nintzen. Irakasle ohi bat nirekin ipini zen harremanetan, eta kontatu zidan bere lagun batek, Isabel Franc idazleak, bularretako minbizia zuela eta gaixotasunaren inguruko lana kaleratzeko asmoa zuela. Isabel eta biok elkartu ginen eta hasieratik feelinga egon zen gure artean: antzeko umorea dugu, eta berak beste ikuspuntu batetik kontatu nahi zuen gaixotasuna: umoretik eta lesbianismotik. Dosierra prestatu genuen eta gustatu zitzaion hura aurkeztu genuen

bigarren argitaletxeari, Norma Editorialari, zeina Estatuan eta komiki munduan nahiko inportantea baita. Lan hori *Alicia en un mundo real* (2010) izan zen, eta, egia esan, itzela izan zen; ezin sinistekoa... Oso momentu egokian kaleratu genuen, nobela grafikoa eta autobiografikoa gorantz zihoalako; gaia ere egokia zen; bi egile ezezagun... Horrela hasi zen nire lan-ibilbidea.

## Harrezkero, lan asko etorri dira, enkarguzkoak zein propioak.

Lanak txandakatu noa. Beste egile batzuekin lan egitea izugarri gustatzen zait, inoiz pentsatuko ez nituzkeen istorioak, ikuspuntuak... ekartzen dizkidatelako. Era berean, zama nahikoa kentzen da gainetik, irabaziak partekatu behar badira ere. Baina aukera dudanean, neuk idatzitako istorioak jorratzen ditut, ego artistiko hutsagatik: zure ideia landu, irudikatu eta argitaratzea egundokoa da. Dena dela, enkarguzko lanak direnean ere izugarri gustatzen zait dokumentatzea eta ikertzea; suposatzen dut Historia ikasi izanaren eragina dela (kar-kar).

*“Beste egile batzuekin lan egitea izugarri gustatzen zait, baina neure istorioak ere jorratzen ditut; ego artistiko hutsagatik”*

### **Modu ezberdinean marrazten duzu kasu batean eta bestean?**

Bai. Egile askok dugun itxuratiaren sindromearekin zerikusia izango du, beharbada: ez naiz nire konfort-eremutik aterako, lan honetarako estilo konkretu bat dudalako deitu didate eta. Egia da bila-kaera izaten dudala, baina estilo konkretu horren baitan: adibidez, hasi nintzenean oso estilo naifa nuen, baina gero estilo figuratiboagoa landu nuen, eta denborak aurrera egin ahala biak nahastu ditut. Nire proiektuak direnean, berriz, gehiago esperimentatzen naiz teknikarekin –akua-arelak, arkatza...–, narrazioarekin... Izan ere, «hil» behar bada, bakarrik hilko naiz (kar-kar).

*“Nire proiektuetan gehiago esperimentatzen naiz teknikarekin; «hil» behar bada, bakarrik hilko naiz (kar-kar)”*

### **Egitasmo kolektiboetan ere hartu duzu parte; gustura?**

Gustatzen zait, beste egile batzuk eza-gutzeko modua delako. Gainera, miresten dituzun egileekin lan egiteko aukera izanez gero, bada, itzela da! Adibidez, nik asko miresten dut Miguel Gallardo, eta proiektu batean berarekin lan egiteko aukera izan nuen. Era berean, polita da istorio berari buruz hainbat ikuspegi azaltzea.

### **Batzuk kexu agertu zarete industriak presionatzen zaituztelako egile osoak izateko.**

Termino itsusi-itsusia da hori, badirudielako beste egile batekin elkarlanean bazabiltza egile osatugabea zarela. Indibidualismoaren aldeko presio handia dago eta ez da talde-lana aintzat hartzen. Industria editorialaren eta kulturalaren krisialdiarekin batera etorri zen nobela grafikoaren susperraldia, baina, nire ustez, lanbidea prekarizatu baino ez da egin: asko eskatzen dizute –batez ere Espainiako estatuan, industria ahulagoa da eta–, egile «osoak» izan zaitezela, teknika handia izan dezazula...; eta sekulakoa izango balitz bezala, autore-komikigintzari buruz hitz egiten dute, sortzeko askatasunari buruz, komikigintza



alternatiboa dela... Baina errealitatea da oso gutxi ordaintzen dutela eta salmentak ere urriak direla. Urtero argitaratzera ere bultzatzen zaituzte: niri esan didate gutxienez bi urterik behin lanik kaleratu ezean jendea nirekin ahaztuko dela. Presio handia dago.

### **Ukitu sozial handia dago zure lanean: feminismoa, migrazioa, LGTBI+ kolektiboa... Zein da zure ekarpena?**

Lehen lanaren ostean, oso ukitu sozial handiko enkarguzko lanak etorri zi-tzaizkidan argialetxe eta gobernuz kanpoko erakundeetatik. Bigarren lana, *Sonrisas de Bombay* (2012), enkargatu zidatenean, argialetxeak esan zidan sentsibilitate berezia nuela, istorio sozi-

*“Lan guztietan asko konprometitzen naiz eta pertsonaia batek edo bik «nire zerbait» dute: hori da nire arrastoa”*

*“Egitasmo kolektiboetan polita da istorio berari buruz hainbat ikuspegi azaltzea”*

alak baino, haietako protagonistak irudikatzen. Egia da lan guztietan asko konprometitzen naizela eta pertsonaia batek edo bik «nire zerbait» dutela: hori da nire arrastoa. Bestalde, Zehar Euskadik eskatu zidan Honduraseko eta El Salvadorreko LGTBI pertsonen buruzko nobela grafikoa egitea, *Alde egin edo hil* (2021), eta el-karrizketak ere egin behar izan nituen... Askok inplikatu nintzen, eta sufritu ere egin nuen... Konturatu nintzen lana amaituta egilea beste zeregin batean nahasten dela, baina pertsona horiek euren trauma edo bizipena behin eta berriro kontatzen dietela gobernuz kanpoko erakundeei, libururik idatzi nahi dutenei... Lanetan kritika soziala egiten ere ahalegintzen naiz.





### **Badago oraindik kontatu ez duzun eta kontatzea gustatuko litzaizukeen istoriorik?**

Bai, baina ez dizuet esango, supersztiziosoa naiz eta (kar-kar).

### **Hamahiru urteko ibilbidean batez beste bi lan kaleratu dituzu urtean; baten bat azpimarratuko zenuke?**

*Annemarie* (2019). Suitzako Annemarie Schwarzenbach (1908-1942) erreportariari buruzko nobela grafikoa da eta oso erditze korapilatsua izan zen: zortzi urte eman nituen hura marrazteko eta kaleratzeko. Hala ere, askoz denbora gehiago eman nuen berari buruz irakurtzen... Guztira 15 urte izan ziren, beharbada.

### **Nolako marrazkilaria zara?**

Figuratiboa, linea erabiltzen duena, nahiz eta linea apurtzea gustatzen zaidan... Ertzak ikusi daitezela gustatzen zait, baina haiek ez amaitzeko joera dut... Behin koloreztatu zidaten eta koloristak flipatu zuen, ez zekielako siluetak noiz amaitzen ziren... Estilo narratiboari dagokionez, Europakoak, *Nouvelle Bande*

*Dessinée*, du nigan eragina: teknika espresiboagoa erabiltzea eta ertzak, bine-tak... apurtzea du ezaugarri.

*“Gauzak aldatu dira komiki munduan, baina oraindik ere kexaka ibili behar da, edo ukondokadaka, ikusi zaitzaten”*

### **Duela 10 urte Autoras de Cómic kolektiboa sortu zen; partaideetako bat zara.**

Emakume egileei agerikotasun handiagoa emateko sortu zen; hitzaldietan, sarrietan... egoteko. Izan ere, nobela grafikoren, mangaren... harira emakume egileen boom itzela egon zen, eta ohiko komikietatik haratago joaten zen iruditeria berria sortu zen. Orduan, emakume eta transexualen, ez-binarioen... kolektiboetako pertsona asko hasi ziren komikiak marrazten. Hala ere, gizonek jarraitzen zuten, eta jarraitzen dute, komikiaren mundua zuzentzen... Egia da harrezkero gauzak aldatu direla, baina oraindik ere kexaka ibili behar duzu, edo ukondokadaka, ikusi zaitzaten. Zarata egiteaz gainera, kolektiboak balio zuen elkar ezagutzeko, biltzeko, gure lana ezagutzeko... Eta guztioi gauza berberak gertatzen zitzaizkigula ikusteko; adibidez, emakumea izateagatik etorkortasunez tratatzea... Niri duela gutxi ere esan didate: «A, hau zuk marraztu duzu?».

### **Nola dago sektorea?**

Estatuan, lan handia egon da pandemiaren ostean, eta Komikiaren Sektoriala ere sortu da, Kultura Ministerioari eskatzeko, besteak beste, dirulaguntza gehiago egon dadila eta deialdietan-eta komiki hitza gainerako ogibideak bezala erabiltzeko; hau da, komiki hitza ere herriaren arlo artistikoaren eta kulturalaren parte izatea. Izan ere, askotan, dirulaguntzen deialdietan komikigintza berez aipatzen

ez denez, aztertzen ibili behar dugu proiektuak zerekin bat etorri daitezkeen, eta zerekin ez. Halaber, liburuaren salmenta-eskubi-deetatik datozen portzentajeak ere zuzen banatzeko eskatzen dugu. Beste aldetik, bekak, sariak... berpiztuz joan dira pixkanaka-pixkanaka. Azkuna Zentroak, esate baterako, beka ematen du Anguleman, komikiaren Europako gunean, erresidentzia egiteko, eta Eusko Jaurlaritzak ere dirulaguntza ematen du sortze grafikorako. Oso ondo dago hori, komikia kaleratzeak atzean hilabete askoko lana duelako, eta beste lan batekin uztartu behar baduzu, zaila da liburuaren modu egokian plazaratzea, kalitateari eustea...

### **Beste lan batekin uztartzen duzue zuk komikigintza?**

Bai, komiki- eta ilustrazio-eskolak ematen ditut, eta ilustrazioak egiten ditut aldizkarietarako, liburuaren portadetarako...

### **Zein proiektu duzue esku artean?**

Ulrike Meinhof buruzko lana enkargatu dit argitaletxe batek; Meinhof Armada Gorriaren Frakzioko (RAF) buruetako bat izan zen. Gidoilari ere banabil proiektuan, eta pertsonaiak zein bere atzean dagoen istorioak erabat liluratuta naukate: RAF zergatik sortu, haren nondik norakoak, kartzela...





## Hurbiletik

(Bartzelona, 1976). Susanna Martín Segarra Pirinioetako herri txiki batean hazi zen, eta horregatik, beharbada, ez da harritzekoa Larrabetzu aukeratu izana bere umea hazteko. Euskal Herrira duela zortzi urte etorri zen, bikotekidea bertan zuelako; eta Larrabetzura, orain dela lau urte. "Argi nuen umea herri txiki batean hazi nahi nuela; nahiz eta nerabea nintzela herrixka batean bizi izatea gorrotatzen nuen... (kar-kar). Hala ere, uste dut, neurri batean, herri txiki batean hazi nintzelako hain zuzen naizela naizen bezalakoa; nire izaerak horrekin du zerikusia". Hizkuntzak eta inguruak

ere konbentzitu zuten. "Herri euskalduna da, eskolak ospe ona du, jantokiak ere bai... Hasieran arraroa izan zen, Larrabetzura etorri eta pandemia hasi zelako, baina gero ondo... Oso herri atsegina da". Bera ere animatu da euskara ikastera. "Hor nabil, B1ekin... Ondo (kar-kar)".

Lan-ibilbide oparoa du Martinek, kutsu sozial handia duena, eta hari esker lekua egin du komiki munduan. Elkarrizketan zehar aipatutakoez gainera, bere lanen artean azpimarratu daitezke *Gaza Amal: Historietas de mujeres valientes en la Franja de Gaza* (2016), *Tipi Tapa* (2017), *Residencia de Estudiantes* (2019), eta *Black is beltza II: Ainhoa* (2022).

"Ekin eta ekin 35 urtez", Txorierriko Udal Euskaltegia

txori tokia



TXORIERRIKO UDAL  
EUSKALTEGIA

**EUSKARA IKASTAROA 23/24**

**Maila guztiak** (16 urtetik gorakoentzat)

**ORDUTEGI ZABALA**

Astean 10 / 7,5 / 6 / 5 / 4 ordu  
Autoikaskuntza

**Zati bitan ordaintzeko aukera**  
Dirulaguntzak Galdetu!

**MATRIKULALDIA**

Irailaren 4tik 26ra

#euskarharrigarria





# Trebatu Txorierrin



## Bertoko soinu tresnen elkarte

**Nagusientzako zein gaztetxoentzako** pandero- eta trikitia-eskolak ematen dituzte Zamudion, baita nagusientzako euskal kantuen ikastaroak ere. Gainera, ikasle kopuru nahikoa egonez gero, beste ikastaro batzuk egiteko aukera eskaintzen dute, esaterako, txalaparta, alboka, bodhran-a, gazteentzako euskal kanten ikastaroa.

Izena emateko, telefonoz deitu daiteke, edo helbide elektronikora idatzi.

**Telefonoa:** 689 246 844

**Emaila:** bertokozamudio@gmail.com



## Dana gimnasia erritmikoa

Kirol-klubak gimnasia erritmikoan dihardu 2006tik hona.

Osasunean eta kalitatean oinarritutako egitasmo propioa da. Horretarako, teknikari trebatu eta kualifikatuz gainera, prestatzaile fisikoa, psikologoa eta fisioterapeuta dituzte.

Lau urtetik gorako ume eta gaztetxoentzako gimnasia erritmikoaren saioak eskaintzen dituzte maila guztietan: hastapena, olgetarako, eskola-lehiaketa eta lehiaketa nazionalak. Gimnastak talde txikietan aritzen dira.

Psikomotrizitate-eskola ere ematen dute bi urtetik hiru urtera bitarteko umeentzat.

**Telefonoa:** 679 564 231

**Emaila:** c.d.gimnasiadana@hotmail.es



**Autoescuela  
DRIVE**  
¡¡MARCAMOS LA DIFERENCIA!!

688 7158 00

ALGORTIA • AIBON • BILBAO • ASTRABUDUIN • SONDIKA

## Drive autoeskola

Gaitasun Profesionalaren Oinarrizko Agiria lortzeko ikastaroak eta **diruz lagundutako Etengabeko Prestakuntza** eskaintzen dute.

Baimen guztiak lortzeko eskolak ematen dituzte.

**AML** (autoa gidabaimenik gabe gidatzea) baimena ematen duen **Bizkaiko autoeskola bakarra da.**

Pista propioak eta ordutegi zabala dute.

**Telefonoa:** 688 715 800 / 946 112 504

**Email:** driveautoescuelas@gmail.com

X Koltza Plaza, 2 - 4. D  
48160 Derio (Bizkaia)  
Tel: 944 54 2719

**Estudios 10**  
Ikastegia

Pakearen Plaza, 3 - behea  
48160 Derio (Bizkaia)  
Tel: 944 54 50 13

## Estudios 10 ikastegia

**Hogeita bost urte baino gehiagoko eskarmentua** dute irakaskuntzan. Eskola pertsonalizatuak ematen dituzte, baita talde txikietan ere. Halaber, arreta-defizita duten umeentzako eskola-saioak eskaintzen dituzte.

**Hainbat hizkuntza** irakasten dituzte ikastegian, hala nola euskara, gaztelania eta ingelesa. Gainera, etxeko lanak egiten laguntzen dute, sarrera-probak prestatzen (unibertsitatera, lanbide-moduluetara...), oposizioak prestatzen eta oinarrizko tituluak ateratzen (nagusiak).

Matrikula doakoa da eta urte osoan dago eskolak jasotzeko aukera.

**Telefonoa:** 944 545 013

**Emaila:** hamar.ikastegia@gmail.com

ikastegi homologatua

**LARRABETZU  
DERIO  
MUSIKA ESKOLA**

**MATRIKULA ZABALIK**

Errebale, 7 behea

## Larrabetzu eta Derio Musika Eskola

Txorierrin 50 urteko eskarmentua dutela, hainbat musika-tresna irakasten dituzte: saxofoia, panderoa, eskusoinua, pianoa, txilibista, bibolina, gitarra elektrikoa eta klasikoa eta bateria, batzuk aipatzearen.

Eskolak bakarka zein taldeka ematen dituzte. Gainera, hizkuntza musikala eta armonia ematen dute lau urtetik gorako lagunentzat. Musika-hezkuntza arautua zein ez arautua eskaintzen dute.

Izar Argia abesbatza akademiaren baitan sortua da eta 30 urte baino gehiago daramatza euskal kanta Txorierriko umeekin abesten eta euskal musika-kultura zabaltzen.

**Telefonoa:** 638 707 201

**Emaila:** larrabetzume@gmail.com





**OAKLAND**  
ENGLISH

—

946 54 28 57  
695 13 54 95

## Oaklan akademia

Oakland Zamudioko akademiak ingeles-akademiak **hainbat mailatako eskolak** eskaintzen ditu, baita ikastaro **trinkoak** eta **enpresetarako ikastaro bereziak** ere.

Oakland akademian adituak dira ikasleak Cambridge, First, Advanced, Pet eta Ket tituluak lortzeko prestatzen: **% 99k gainditzen** dute azterketa.

Akademian, **ikasketa-prozesu indibidualizatuen** aldeko apustua egiten dute, ikasle bakoitzaren erritmoa eta garapen-prozesua kontuan hartuta. Izena ematea doakoa da eta behin hura emanda hasi daiteke eskola-saioetan parte hartzen.

**Telefonoa:** 946 522 857

**Emaila:** josu@oaklandzamudio.com

**Satori**  
FITNESS

📞 690 044 748

✉️ satorifitnes@gmail.com

📍 Plaza Beaside, 3  
(entrada por Urbe Kalea)  
Derio

## Satori fitness

Ongizatea eta osasunaren zaintza osoa dute ardaztat.

Adituak dira pilatesean, entrenamendu funtzionalean eta haurdunaldiari eta erditu ondorengoari lotutako ariketetan.

Talde-saioak egiten dituzte, baita saio pertsonalizatuak ere.

Zerbitzu osagarriak eskaintzen dituzte, hala nola nutrizioa eta esku-terapiak.

**Telefonoa:** 690 044 748

**Emaila:** satorifitnes@gmail.com

**XAKER**  
kirol zerbitzuak S.L.

Gorbea 1, 1B  
48195 Larrabetzu BIZKAIA  
652 710 532  
www.xakerkirola.eus  
xaker@xakerkirola.eus

## Xaker kirol zerbitzuak

Kirol-instalazioak kudeatzeaz arduratzen dira, garbitzeaz eta mantentzeaz.

Kirol-erakustaldiak antolatzen dituzte.

Goi-mailako pilota-taldeak entrenatzeaz gainera, kirol-elkarteen kudeaketa hartzen dute euren gain: klubak, federazioak, eskolaz kanpoko jarduerak, uda-lekuak...

Larrabetzun, Lezaman eta Zamudion, era guztietako kirol-ikastaroak eskaintzen dituzte, hala nola yoga, pilates, total body fitness, mantentze-gimnasia, txirrin-bike...

**Telefonoa:** 652 710 532

**Emaila:** xaker@xakerkirola.eus






Aitor de Paz (Madeira)



Jesus Maques (Masca)



Ángel Luis Hernández (Madeira)



Ángel Luis Hernández (Formentera)



Maite (La Palma)





Nahia Coello



Nahia Coello (Santana)



Iratxe Pirla (Laida)



Gaizka Eguzkitza (Ogeia)



Jesus Marques (Teide)



# Berbalagunek gogotsu ekingo diote ikasturte berriari



Ikasturte berria hasi da, eta Txorierriko berbalagun-taldeak martxan dabiltza berriro. Egitasmoaren helburua da euskaraz hitz egiteko ohitura duten pertsonak eta euskaraz egin nahi duten pertsonak elkartzea, eta izena-ematea zabalik dago. Gainera, Berbagazte eta Gurasolagun programak ere abian ipintzeko asmoa dago, gazteek eta seme-alaba txikiak dituzten txorierritarrek ere euskaraz egin dezatela bultzatzeko.

Esan moduan, Berbalagun egitasmoak batzen ditu euskaraz egiten duten lagunak eta euskaraz egin nahi duten lagunak. Hainbat arrazoi daude horretarako: euskaraz bizi nahi izatea, euskarmaila hobetzea, aspaldian ikasitakoa freskatzeko, mintzapraktika egitea... "Astean behin, ordubetez, elkartzen gara pasieran ibiltzeko, parkean hizketan egoteko, kafe bana hartzeko... Nahi dugun ekintza egiteko, baina euskaraz", azaldu du Ane Lopez arduradunak. Egitasmoa Txorierriko herri guztietara dago zabalik eta herri batzuetan talde bat baino gehiago sortu dira. Berbalagunek komuneko ekintzak ere egiten dituzte, egitasmoa herri bakoitzetik harago era-

mateko eta Txorierriko berbalagunek elkar ezagutzeko. "Astero elkartzeaz gainera, hilabetero bizpahiru ekintza osagarri ere egiten dira. Txorierriko herri guztietako berbalagunak batzen gara eta irteerak, afariak, ikastaroak... egiten ditugu". Datozen egunetan aurtengo ekintzen berri emango dute.

Aurtengo ikasturtean, Gurasolagun eta Berbagazte egitasmoak ere bultzatzen ahaleginduko dira. Gurasolagun egitasmoa da euskaraz hitz egiteko ohitura duten gurasoentzat eta euskaraz ibiltzeko zailtasunak dituztenentzat. Helburua da horiek astean ordubetez taldeetan elkartzea, haien artean zein seme-alabekin euskaraz egin dezaten eta, aldi berean, hainbat ekintza gozatu ditzaten, hala nola jolasak, kantak eta tailerrak. "Berbagazte, bestalde, Berbalagun programa Txorierriko Institutuko ikasleei eta Politeknika Txorierriko ikasleei zabaltzean datza; 16 urtetik gorako gazteei, hain zuzen. Hortaz, egitasmo oparoa izan daitekeelakoan, modu erakargarrian eta praktikoan diseinatu da: hainbat ekintza proposatu dizkiegu, eta euren proposamenak ere onartu dira".

Lopezek esanetan, egitasmoetako edozeinetan parte hartzeak onura asko ekartzen ditu. "Euskararen alde ekarpena egitea, euskara ikasten dabilenari bere maila hobetzen laguntzea, euskaraz gehiago hitz egitea, lagunak egitea eta ondo pasatzea, ikasitakoa ez galtzea, euskaraz bizitzea... Era berean, lagun-garria izan daiteke hizkuntza-eskakizunak lortzeko". Beraz, hamaika arrazoi daude Berbalagun, Gurasolagun eta Berbagazte egitasmoekin bat egiteko.

Lopezek egitasmoak ezagutzeko gonbidapena egin du. "Interesa duzuenok, nahi duzuenean, talderen batera edota ekintza osagarriren batera etorri zaitezketete, edo gurekin harremanetan ipini, informazio gehiago jasotzeko". Horri lotuta, egitasmoetan parte hartzeko ize-na ematea zabalik dago. "Euskara zure eguneroko hizkuntza bada, lagundu «euskaldun gehiago sortzen»; eta oraindik euskaraz hitz egitea kostatzen bazaizu, zatoz gurekin!".

**berba  
Lasun**

**telefonoa:**  
747 447 579

**e-maila:**  
txorierr.berbalaguna@gmail.com

**antolatzaileak:**  
TOTOAN TEEF  
Txorierriko Zerbitzuen  
Mankomunitatea





# ZUREKIN

AUZOAN

PARKEAN

Mintza  
**POZA**  
PRAKTIKATU



# edonon

ARRATSALDEZ

# edonoiz

GOIZETAN

Elkarrekin  
**MINTZAPOZA**  
praktikatzeko  
nahi beste plan  
aukeran!

**IZEN EMATEA: Urte osoan zehar**

📞 747 447 579 - [berbalagun.txorierri@gmail.com](mailto:berbalagun.txorierri@gmail.com)

 [mintzalaguna.eus](http://mintzalaguna.eus)

Antolatzailea



Babesleak



Laguntzaileak





# Aurtengo udan ere hainbat ekintza izan ditugu Derioko eguneko zentroan



t: Joanes Camara, gizarteratze-teknikaria

Aurreko urteetan moduan, PAI Bitartean zerbitzuko eguneko zentroan ibiltzen garen pertsonok bilera egin genuen, abuzturako zer motatako ekintzak antolatu nahi genituen erabakitzeko. Garrantzi handia ematen diogu aisialdi osasungarri eta hezigarriari, eta horregatik, guztion gustuak eta iritzia kontuan hartuta, Bizkaian eta inguruan dauden eskaintzak begiratu genituen. Zer egin edo nora joan begiratzen ibili ginenon kezka oso bestelakoak dira, eta, hortaz, saiatu ginen ahalik eta eskaintza zabalena topatzen hurrengo arlo hauetan: kultura, entretenimendua, kirola, gastronomia, turismoa...

Hasteko, eta animalien artean ibiltzea atsegina eta terapeutikoa denez, Karrantzako Vista Alegre baserria bisitatu



genuen. Hangoek azaldu ziguten esnetarako behiak dituen baserri batek nola funtzionatzen duen eta gazta, jogurt... ekologikoak nola egiten dituzten. Cabarcenoko Natura Parkeraino ere hurbildu ginen, munduko hainbat txokotako animaliak ikusteko eta euren koloreak eta formak behatzeko.

Horrezaz gainera, Bilboko itsasadarretik egin genuen turismoa: itsasontziz joan ginen Abraraino, eta Guggenheimetik eta Portugaleteko Zubitik pasatu. Era berean, Pozalaguako kobazuloak bisitatu genituen, eta bertan dauden estalaktitek eta estalagmitek harritu gintuen benetan. Hala ere, ikusgarrienak eta ezohizkoenak izan ziren edozein norabidean hazten diren estalaktita bitxiak, aparteko figurak sortzen dituztenak.

Garrantzia ematen diogun beste alderdi bat da kirola. Horrela, piraguan sartu, eta paseo ederra baino ederragoa egin genuen Urdaibaitik, hango txokoak, animaliak eta landareak behatzen genituen bitartean. Ondoren, Laredora joan ginen eta zaldi gainean ibili ginen bertako hondartzan. Azkenik, Athleticen museoa bisitatu genuen, bere sorreraz eta historiari ondo jabetzeko.



Bestalde, gastronomiari lotutako planak ere antolatu genituen, hala nola elikadura-tailerrak eta barbakoa, eta kultura arloko ekintzak. Aipatutako ekintza guztiek uda biribildu dute, parte-hartzaile guztiek opor aktiboak eta plan alternatiboz betetakoak bizitzeko aukera izan dutelako. Izan ere, guztiok merezi dugu gozatzeko eta atsedena hartzeko unea izatea, eta egunerokotasunaren monotonía eten.



# Iodo-belarra

t: @txiribita\_mundi / a: Freepik

*Chelidonium majus*. Enara-belarra moduan ere ezaguna, landare bizikorra da eta 90 cm-ko altuera ere izan dezake. Zurtoin hauskorak ditu, eta haiak apurtzen edo moztzen ditugunean, laranja koloreko latexa irteten da. Loreak hori koloreko lau petalok osatzen dituzte, gurutze-itxura hartzen dutenak; 3-6 loreko sortak osatu ohi dira. Euren formagatik, fruituek leken antza dute, nahiz eta iodo-belarra papaverazekoen (mitxoleta) familiakoa den, eta ez lekadunen familiakoa. Ohikoa da iodo-belarra Iberiar penintsularen iparraldean, inguru itzaltsuetan eta hezeetan. Antzina asko erabiltzen zen eta horregatik topatu dezakegu baserrien, harresien eta hesien ondoan, baita bide-ertzetan ere.

## Erabilera medizinalak

Alkaloide-kopuru handia duenez, ahoz ez hartzea aholkatzen da, gonbitoia eta zorabioa eragin dezake eta. Belar-biltzaileek nahiago dute iodo-belarra kanpo-erremedioak egiteko erabiltzea, garatxoak kentzeko, adibidez, oso eraginkorra da eta. Latex freskoan dago azido zelidonikoa, garatxoen kontrakoa dena eta propietate antimikotikoak eta birusen kontrakoak dituena. Eraginkorra da atzamarretan ateratzen diren garatxoak kentzeko zein oin-zolan, lepoan, besapeetan eta buruan ateratzen direnak kentzeko.

## Errezeta: Iodo-belarraren krema

Osagaiak: 80-100 g hosto fresko, katilekada bat glizerina begetal natural eta koilarakada bat ur destilatu. Eskularruak ipini beharko ditugu, zikintzeaz gainera, larruazala erre dezakeelako. Hostoak txiki-txiki egingo ditugu eta 15 minutuan egosiko ditugu; lurrunari adi egon beharko diogu, narritagarrria izan daiteke eta. Hogei minutuan izango dugu jalkitzen. Ondoren, su motelean egingo dugu berriro, 20 minutuan, likidoa gutxi gorabehera erdira urritu dadin. Glizerina gehituko dugu eta apur bat gehiago egingo dugu, hariak eta baselina-testura hartzen duen



arte. Ontziratuko dugu, eta hozten utzi. Ontzian data ipini, eta hozkailuan gordeko dugu; kontserbagarririk ez duenez, 3-4 aste igarota, bota beharko dugu.

Nola erabili: kotoi-zotz batek lagunduta, garatxoan ezarri ahal dugu, inguruko larruazala ukitu barik (baselina, esparatrapua edo gaza bat erabili dezakegu larruazala babesteko). Egunean bi aldiz ezarri dezakegu, garatxoa desagertu arte.

Kontuz: ezin da zaurietan edo erroitzeetan ezarri; narritadura sortu dezake, eta larruazalean babak agertu. Latexa larruazalera erortzen bazaigu, ur hotzetan garbitu behar dugu.

## Bitxikeriak

*Chelidonium* izena grekotik dator, chelidon hitzetik hain zuzen, enara adierazi nahi duena. Dioscóridesen arabera, izen hori ipini zioten "landarea enarak etortzen direnean sortzen delako, eta enarek alde egiten dutenean, sikatu eta zimeltzen delako".

## Beste erabilera batzuk

Landare ezti-emalea da, erleak erakartzen ditu eta beste intsektu polinizatzaile batzuk. Beste aldetik, hostoak koltxoiaren gainean ipiniz gero, arkakusoak uxatuko dira.

## Landareak batzeko aholkuak

**Orokorrean:** hartu ondo ezagutzen duzuna, neurritz eta soilik lekuan asko badaude; ez eraman dena, utzi beti zer bait; hartu bakarrik erabiliko duzun landarearen zatia; ez atera sustraitik; moztu, ondo hazten jarrai dezaten; ez moztu loreen % 20 baino gehiago, zuhaitzak edo zuhaixkak bada; ez jaso gune babestuetan edo parke naturalean.

**Non:** larreetan eta autorik pasatzen ez den bide-ertzetan; goldatu gabeko basoetan; toxikorik erabiltzen ez den ortuetan eta lorategietan; INOIZ EZ areketan, fumigatutako landetan eta ibaiertz kutsatuetan.

**Noiz:** goizean, ihintza sikatu ondoren; hartu hostoak erabiliko ditugun egunean bertan; hartu loreak goizean eta sustraiak arratsaldean; landareak gorde edo sikatzeko, hobe da ilbehera denean jasotzea.

**Materialak:** eskularruak, artaziak, paperezko oihalezko poltsa, zumezko saskiak...

# Eskolara itzultzea

t: Ursula Tomas, psikologoa eta neuropsikologoa

Ikasleek, helduek bezala, zailtasunak dituzte errutinara itzultzeko. Antsietatea, apatia edo suminkortasuna dira haur eta nerabeek izaten dituzten sintometako batzuk, ikasgeletara itzultzean eta ikasturtean etxeko lanak eta betebeharrak berreskuratzean. Atsekabe, estutasun eta deserosotasun sententzioa eskolako lehen egunetan izaten da maiz, eta haur asko uzkur ager daitezke etxeko lanak egiteko, goizean esnatzeko edo eskolara joateko.

Udako oporretan ohi baino askatasun handiagoa izan dute eta beranduago oheratu dira; horregatik, bi hilabeteko atsedeneren ondoren, askori kostatzen zaie lotara goiz joatea, hurrengo egunean, iratzargailuak jotzen duenean, "izarak itsatsi" ez dakizkien. Hori dela eta, ikasturtea hasi baino lehen errutina hastea gomendatzen da, ahalik eta jasangarriena izan dadin.

Motibatzea ere gomendagarria da, eta eskolara itzultzean topa ditzaketen ezezagunen aurrean antsietaterik ez transmititzea. Umeekin ikasturtearen hasierari buruz hitz egitean, ilusioz eta "modu positiboan" hitz egin behar dugu; bestela, eskolarekiko beldurra eta jarrera negatiboa agertzeko arriskua dugu. Gainera, garrantzitsua da ziklo edota ikastetxe berriari buruz izan ditzaketen kezka aipatzea. Eguneroko errutinaren barruan, gomendagarria da uneak aurkitzea eguna nola joan den eta normaltasun berriak sor ditzakeen kezka azaltzeko. Une horietan familia osoak parte hartzea da onena, baina eskatzen bada, modu individualagoan ere egin daiteke.

Oso garrantzitsua da errutina berria planifikatzea. Lehen egunetako urduri-



Argazkia: Freepik

tasuna txikiagotzea erraztuko dute, besteak beste, ikasturtea hasi baino lehen materiala garaiz prestatzeak, lasai gosaltzeko denboraz jaitziteak eta eskolara garaiz eta korrika egin gabe iristek. Gainera, ez ahaztu bizkar-zorroan pazientzia eta enpatia dosi bat sartzea. Izan ere, normaltasun berrira egokitu beharko da eta aldaketa asko egongo dira: ume bakoitza bere erritmora egokituko da aldaketa horietara eta batzuei beste batzuei baino gehiago kostatuko zaie. Hori guztia jakinda, enpatia izango da gure aliaturik handiena; umearen lekuan jartzen bagara, hobeto joango da dena.

- Hau zuk ere parte hartzeko lekua izatea nahi dut. Horregatik, umeen jarrerari lotutako kezka, zalantza eta galderak bidali ahal dizkidazu, eta datozen artikuluetan emango diet erantzuna.

- Nirekin harremanetan ipintzeko, idatzi aldizkariaren helbide elektronikora:

**aikortxori@aikor.com**

**IZ**  
ILE APAINDEGIA  
946036943  
Txantxangeri n2  
ZAMUDIO  
iz.apaindegia@gmail.com

**PsikoNeuro**  
TXORIERRI  
Psikologia eta Neuropsikologia  
Derioko Seminarioa, A eraikuntza 3. solairuan  
611 172 488  
psikoneurotxorierri@gmail.com  
@psikoneuro\_txorierri

**Ekipatu**  
Laneko arropa  
722 819 774  
tiendasondika@ekipatu.com





## Ikusgarria

Goiz batean, gosaltzen nenbilela, ilargi ikusgarri-ikusgarria ikusi nuen. Argazki-kamera hartu, eta ilargia hain handi agertzeko, objektibo ezberdinak erabilia esposizio bikoitzaren teknika erabili nuen. Teknika horri esker, argazki bat egiten da eta jarraian beste enkoadraketa batean gainjartzen da, eta beste argazki bat atera. Irudiak argazki-kameran bertan fusionatzen dira; hau da, goiko argazkiari ez zaio geroago ilargia ipini.

**RADIO TAXI FEMADE** *Zure taxi, Teorierikoa*  
Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Lolu  
24h **94 480 09 09**   
ERRESERBAK:  
[www.taxisaeropuertobilbao.com](http://www.taxisaeropuertobilbao.com)

**DESKARGATU APP-A**  
  
**TAXI FEMADE**

**AmAr**  
ileapaindegia  
Asteartea-ostiralea:  
9:00-19:00  
Laburumbata:  
8:00-13:30  
Urbe plaza, 1 behea  
Zamudio  
**944 520 419**

**PATXI**  
KOOP  
PATXI KOOPERATIBA ELKARTEA  
Naberbe poligona | Txarrena 4, 48170 Zamudio (Bizkaia) | Tel: 944 522 587 | info@patxi.coop | www.patxi.coop

**ELORRIETA**  
INSTALACIONES  
ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA  
Urbe kalea, 12 behea Derio 48160  
94 454 03 86  
**639 57 98 48 - 639 58 25 47**

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku  
ZERBITZU BERRIAK  
Logopedia  
Podologia  
Kirurgasajea  
Txorierri etorbidea, 9 - Lonja | Arteaga eraikina | 48160 DERIO  
94 454 01 01 | 657 79 54 45  
info@dentatzainduz.com | www.dentatzainduz.com

## Kalabaza-opil txikiak

a: Ekaterina Bolovtsova (Pexels)

### Osagaiak:

- 250g kalabaza
- 2 arrautza
- 250 g irina
- Edalontzi txiki bat azukre
- Edalontzi txiki bat esne
- Limoi-birindura
- Ur apur bat
- Olioa
- Azukrea eta kanela nahastuak



### Prestatzeko era:

Kalabaza zurituko dugu, txikitu, eta kazola batean egosiko dugu 10 minutuan. Kazolatik atera, eta hagaxka edo sardexka batek lagunduta sakatuko dugu, harik eta ore antzeko bat lortzen dugun arte. Orea nahastuko dugu azukrearekin, limoiarekin, arrautzekin, irinarekin eta esnearekin, ore uniforme bat lortzen dugun arte. Bestalde, olio berotuko dugu zartagin batean. Bero dagoenean, koilara bat hartu, eta ore-zati txikiak botako ditugu zartaginerari; alde bietatik frijituko ditugu. Kalabaza-opil txikiak ontzi zabal batean ipiniko ditugu, eta gaineratik azukrea eta kanela botako diegu.



**POLITEKNIKA  
TXORIERRI**

# hegan

egiteko  
aukerak

**Salmentak eta Merkataritza**  
Espazioak Kudeatzea  
Gestión de Ventas  
y Espacios Comerciales

**Ingurumen Hezkuntza**  
eta Kontrola  
Educación y Control  
Ambiental

**Telekomunikazio eta**  
Informatika Sistemak  
Sistemas de Telecomunicación  
e Informáticos





**Eman izena!**  
[politeknikatxorierrri.eus](http://politeknikatxorierrri.eus)



## Espagetiak marinela erara



a: Freepik

### Osagaiak (lau laguntzat):

- 250g espageti
- Ganbak
- Txipiroiak
- Txirlak
- Tomate frijitua
- Gatza
- Olioa

### Prestatzeko era:


Espagetiak egosiko ditugu; ondoren, ur hotzetatik pasatu, eta xukatzen ipiniko ditugu. Zartagin batean, su ertainean, olio apur bat ipini, gatza bota, eta txipiroiak frijituko ditugu. Ganbak gehituko ditugu, eta frijitzen jarraituko dugu. Ostean, txirlak gehituko ditugu eta zartaginari estalkia ipiniko ditugu, txirlak ireki daitezzen. Tomate frijitua bota eta eragingo dugu; zartaginari berriro ipiniko diogu estalkia. Bizpahiru minutu pasatzen direnean, espagetiak gehituko ditugu eta pare bat aldiz eragingo dugu, osagai guztiak ondo nahasi daitezzen.



## Umeen txokoa: bost desberdintasunak

Ezetz bost desberdintasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu.

a: [onlykidsonly.com](http://onlykidsonly.com)



## Gomendioak

### LITERATURA: NAGUSIAK

–*Oso latza izan da* (Elkar), Xabier Mendiguren Elizegi.

–*Barraskiloek baino bat gehiago* (Erein), Ane Labaka Mayoz.

–*Lidiaren*

*betaurrekoak*

(Erroteta), Aitor

Arana Luzurriaga.

–*Haize Leizean*

(Elkar), Elise Dilet,

Antton Hariño

ordoki eta Ainize Butron



### LITERATURA: GAZTEAK

–*Mortina - Barrez lehertzeko moduko istorioa* (Mezulari), Barbara Cantini.

–*Begiak zerumugan*

(Elkar), Miren

Agur Meabe.

–*Maripuzker*

(Elkarlanean),

Mitxel Murua

Irigoién

–*Surflaria*

(EHko Ikastolak

Europar koop),

Uxue Alberdi eta

Susanna Martín

–*Joan, Joana* (Alberdania),

Francisco Castro



## Sudokua

					3	1	6	7
	9		8			3		
6	2	3		7		8	4	
8	3					7	9	1
	4					5		8
							2	
		2	4					
				1				
4			2	5	7	9	8	

3	8	6	7	5	2	1	9	4
4	7	2	9	1	3	8	5	6
5	1	9	6	8	4	2	7	3
9	2	4	8	3	5	6	1	7
8	3	5	1	6	7	9	4	2
1	6	7	4	2	5	6	3	8
6	4	8	5	7	1	3	2	9
2	5	3	4	6	9	8	7	1
7	6	1	9	2	3	4	8	5

# Ekipatu

Laneko arropa

Burdindegia  
Pertsonalizatzea eta serigrafia  
Kirol-ekipamenduak  
Norbera babesteiko ekipamenduak (NBEak) eta lan-segurtasuna

722 819 774

[tiendasondika@ekipatu.com](mailto:tiendasondika@ekipatu.com)

- Plater konbinatuak  
- Ogitartekoak  
- Kaxolak

**BIZKARGI KAFETEGIA**  
Euskal Herria Kalea  
48160 - Derio (Bizkaia)  
94 454 16 55

## Azokak

### Larrabetzu

- > Bertoko produktuen azoka. Urriaren 22an, plazan.

## Erakusketak

### Derio

- > "Beste begiradak", Emaús, APNABI Bizkaia eta Lantegi Batuakeko erabiltzaileek egina. Urriaren 15era arte, Kultur Birikan.

## Hitzaldiak

### Zamudio

- > *Zamudioko baserriak* argitalpena. Urriaren 21ean, 11:00etan, Zamudio-torren. Izena ematea: 944 060 990.

### Larrabetzu

- > "Haurren aurrean helduok heldu" ekimenari lotutako hitzaldia, Kike Amunarrizen eskutik. Urriaren 5, 18:00etan, Angulari kultur etxean edo eskolako jantokian.
- > Literaturaz berbetan: Miriam Lukiren Argialdiak liburua. Urriaren 19an, 19:00etan, Anguleri kultur etxean.

## Izena emateak

### Larrabetzu

- > Ume eta gazteentzako irakurketa saioak. Izena ematea, Anguleri Kultur Etxean.

## Musika

### Larrabetzu

- > *Domekak Hori Bain: Asago*. Urriaren 15ean, 18:30ean.

## Tailerrak

### Sondika

- > Menopausia, Juncal Alzugaray fisioterapeutaren eskutik. Urriaren 24an, 18:30ean, Kultura Aretoa In. Garrasia talde feministak antolatua.
- > Haurdunaldia eta erditu ondorengoa, Juncal Alzugaray fisioterapeutaren eskutik. Urriaren 26an, 18:30ean, Kultura Aretoa In. Garrasia talde feministak antolatua.

### Loiu

- > "Munduari bira zuhaitzen bidez" bisita gidatua. Urriaren 7an eta 21ean, 10:00etan, Urdaneta ikastetxean. Izena ematea: museo.ciencias@colegiourdaneta.com.

### Derio

- > Ahozko historia. Urriaren 24an, 16:00etan, Bizkaiko Elizaren Histori Artxiboan (Seminarioan). Izena ematea: 944 062 493 eta katalogo@ahab-beha.org.



## Ikuskizunak

### Sondika

- > *Luze eta motz* antzezlan, Mirari Martiarena eta Idoia Torregarainen eskutik. Urriaren 1ean, 18:30ean, Kultur Etxean. Garrasia talde feministak antolatua.

### Zamudio

- > *Urteak bete, abenturak bizi, Porrotx eta Marimototsen* eskutik. Urriaren 20an, 18:30ean, udal-kiroldegian. Lagatzuk euskara elkarteak antolatua.

### Larrabetzu

- > Zinekluba. Urriaren 17an, 19:00etan, udaletxean. "Haurren aurrean helduok heldu" ekimenari lotutako dantzaldia, Dj Kaktusek girotua. Urriaren 21ean, arratsaldean.



1. KANPORAKETA  
**URRIAK 1**

Araitz Katarain Mugarza,  
Izaro Bilbao Arostegi,  
Koldo Muñiz Aldamizetxebarria,  
Mikel Goirieta Larrazabal,  
Peru Vidal Gurrutxaga  
eta Txaber Altube Sarrionandia.  
Gai-jartzailea:  
Zihara Enbeita Gardoki.

**MUNGIA**  
OLALDE ARETOA. 17:00

BIZKAIKO  
BERTSOLARI  
TXAPELKETA  
2023

www.bertsozale.eus  
www.bertsosarrerak.eus

Antolatzailea: Babesleak: Loguntzailea:



# URTEAK BETE, ABENTURAK BIZI!

Porrotx eta Marimotots

URRIAK 20  
BARIKUA

SARRERAK 8€  
SALGAI URRIAREN 1ETIK 19RA

18:00 ETAN  
ZAMUDIOKO KIROLDEGIAN

**Online:**

[www.zamudio.eus](http://www.zamudio.eus)  
(jarduerak eta bonoak)

**Zamudion:**

Estankoan eta Liburudendan

**Derion:**

Tahona Uribe Okindegian  
(Aldekone)

**Bazkideentzat 6€**

Urriaren 2, 3 eta 4an  
18:00etatik 19:00etara  
Lagatzuko lokalean



# IKASTAROAK

Puntu, kakorraz, amigurumi, josketa, bordatu, patchwork  
eta barrubigun kurtsoak

## ORDUTEGIA

Astelehenetik Ostiralera

10:00etatik 14:00etara / 16:00etatik 20:00etara

Zapatuetan

10:00etatik 13:30era



**EL PUNTO BOBO**   
*Espacio Creativo*

Iturrigane 1 - Sondika

Tel. 946 855 612 - 699 133 157

info@elpuntobobo.com - www.elpuntobobo.com